

# Lekeitioko Musika Banda

Fernando Garatea

Lekeitioko lehenengo musika bandaren data zehazteko, artxibora jo dugu, paper artera, informazio bila.

Eta ugari dira paperak, gero, herri honetan. Maria Diaz de Haro andereak Lekeitiori hiri-gutuna eman zionetik (1325) udal jarduera guztiak daude bilduta eta sailkatuta herriko artxibategian. Baina nork dauka horiek guztiak irakurtzeko adorea?

Niri beldurra ematen didate, bibrazio negatiboen bilgune direlako, izurrite sortzaileen ezkutaleku izan daitezkeelako...; bera, paperoi galbahea pasatzea erabaki dut eta galbahea zelan pasa pentsatzen nabilela konturatu naiz gauza batez: lekeitiarrak, munduko abilenak izan arren, beste lekuetakoen antzera ibili izan direla, ia beti, denean; bera, gaur eguneko musika banden antzekoak munduan noiz sortu ziren jakinez gero, Lekeitiokoa hortxe ibiliko zen, ziurrenik, hotz baino gehiago bero.

Interneti galdetu eta musika bandak XIX. mendearen erdialdean ugaritu zirela iradokitzen du, instrumentuen garapenarekin batera. Orduantxe hobetu baitzituen Theobald Boehm alemaniarrek flauta, klarinete eta oboea giltzen eta balbulen sistema ezarrita. Eta orduantxe asmatu zuen Adolphe Sax belgikarrak saxofoia.

**D**zanga, beraz, XIX. mendearen erdialdera eta hara non 1845ean aurkitu dugun lehen musika banda osatzeko ahalegina, Lekeition.

1845eko urte hartan, uztailaren 19an, Roman Ansola, Jose Antonio Zenabilla, Gualberto Arrospide, Juan Santiago Bandaormae-txea, Martin Olloki eta Jose Maria Etxebarria<sup>1</sup> jaunek aurkeztutako idatzia irakurri zuten Osoko Bilkuran. Laburbilduta hauxe zekarren: musika ezarri nahi zutela herrian, Lekeitiok baino biztanle gutxiagoko herriek egin bezala; erabakita zeukatela hilero pezeta bina ematea musika ezartze-gastuetarako; harpidetzatik ateratakoa ez zenez aski instrumentuak erosteko, udalbatzari eskatzen ziotela laguntza horretarako, beti ere, kontuan izanda musika ezartzea zeinen aberasgarri eta edergarri izan zatekeen herriarentzako.

Udalbatzaren erantzuna, laburbilduta, hauxe: satisfazioz irakurri zutela memorandum; onartzen zituztela bertako ideiak [ideia filarmo-nikoak, dakar testuak]; bat zetozela esatean musikak ederretsi egingo zituzkeela funtzio eklesiastikoak zein sekularrak; baloratzen zutela gazteria ikustea musikaren proiektua bultzatzen; prest zeudela laguntzeko, udalerriko fondoek eskasiak uzten zuten neurrian; komenigarri ikusten zutela alkatearekin batera araudi bat idaztea elkarterako eta harpidetza zabaltzea herritarren artean.

Musikaren ezartzea eskatzen zuten jaun horiek – tartean Roman Ansola<sup>2</sup>, herriko danbolinteroa, 1833tik –, zer musikaz ari ziren? Musika bandaz, zalantzarik gabe.

Baina udalaren asmo ona ogasunaren diru eskasiari zuzenki proportzionalak izanik, ez zen gatzatu proiektua.

### **Antonio Cavanilles**

1845etik 1857ra egin dugu jauzia, 1857an etorri baitzen Lekeitiara Antonio Cavanilles<sup>3</sup>. Bi hilabete egin zituen herrian eta liburu bat idatzi: *Lequeitio en 1857*.

Aurkitu ote zuten musika bandarik 1857ko Lekeition?

Bandarik ez, hauxe baitio: *Jai egunetan familiak herriko plazan bitzen zirela, dibertitzeko: mutilak pilotan, neskak dantzan, txistu eta danbolin soinuaren harira ... harik eta kanpaiek errezorako deia jotzen zuten arte; orduan, danbolinteroaren agurrak ematen zion azkena jaiari eta denak erretiratzen ziren.*

Baina musikarekin loturik honako hau aipatzen du: Jose Jabier Uribarrenek eta Maria Jesus Agirrebengoak 1855ean Pariseko erakusketan garaile atera zen organoaz hornitu zutela Konpainiako eliza, eta, gainera, organoak jotzeko organista ere ekarri zutela, Juan Maria Altuna.

### **Juan Maria Blas Altuna<sup>4</sup>**

1828ko otsailaren 3an, San Blas egunean, jaio zen Durangon. Gurasoek –artisansu zintzoak– aurretzuta zeukatzen diru apurra semearen heziketa musikalean ezarri zuten, Juan Mari semearentzat hori izango zelakoan

1 Lan honetan agertzen diren izen-abizenak BERRIAREN estilo liburuan markatutako irizpideen arabera idatzi dira: "Euskal herritarren euskal abizenak euskal grafiaz idatzen dira BERRIAN, norberaren ohitura gorabehera. Ponte izenak, berriz, norberak darabilen forman. Marka diakritikoak, hala nola azentuak eta dieresiak, ezabatu egiten dira".

2 Roman Ansola Don Benitoren birraitona izan zen. Ansolatarrak 1833-1937 bitartean izan ziren udalaren danbolinteroak.

3 Antonio Cavanilles (1805-1864) historialaria, legegizona eta idazlea izan zen. Historiako Erret Akademiako kidea.

4 Madrileko "EL Artista" aldizkaritik ateratako testuak.

egokiena bizitzan aurrera egiteko, ikusmen urrikoa baitzen, ia itsu jaioa.

Ikusmen urriko mutikoak talentu ikaragarria zuen eta irakasten zioten guztia memorizatzen gai zen, momentuan. Aita Larramendirekin ibilia, Madrilerako jo zuen Hilario Eslaba konpositore handiarekin ikastera, eta handik, Pariserako. Parisen punta-puntako musikariarekin zebilela ezagutu zituen Uribarren-Agirrebengoak senar-emazteak. Hauek Lekeitioko gonbidapena egin zioten, San Jose elizarako erosia zuten armoniumaz arduratzeko, eta Altunak onartu.

Zeregin artistikoetatik erretreta hartuta iritsi zen Lekeitioko atse-denlekura, baina laster hasi zen lanean, koru handi bat sortuz Lekeition, musika obra ikaragarri zailak abesteko gai zena. Umeen lanari eta maisuaren behaketa-dohainari, pazientziari, bakoitzari ulertzeko berbekin hitz egiteko abilitadeari eta umeak estimulatzeko gaitasunari esker lortu zuen koruak arrakasta.

Tristeza, pentsalaria, urduria, sentiberatasun handikoa, apala, handigura gabea, bihozbera ... zintzotasunaren erudia izan zen Altuna. Maite zuen herriak, etxekotzat zeukatzen guztiak.

### **1861**

1861eko otsailaren 21eko udal-aktan hauxe irakurri dugu: Juan M<sup>a</sup> Altuna udalerriko musika irakasle izendatu zutela, urteko 2.000 errealeko soldatarekin. Hortaz, horra hor Lekeitioko lehenengo Udal Musika Eskola.

### **1861eko errolda**

Uribarren hil zen urtean, 1861ean, errolda egin zuten Lekeition, eta errolda horretan abenduaren 24ko gaua Lekeition igaro zutenen izen deiturak eta lanbideak ageri dira zehaztuta, emakumeenak zein gizonenak. Alfabetikoki ordenatuta, hauexek dira lanbideak: aberats, abokatu, administratzaile, aduanari, albaitari, amugile, apaiz, arotz, arrantzaile, atezain, aulkigile, bizargin, bordatu egile, botikari, dendari, ebanista, ehule, enterradore, erizain, errementari, erroldagile, eskabete-egile, eskale, eskribau, etxeko andre, ezindua, galdaragile, galtzetari, garbitzaile, gazta egile, gorulari, gozogile, guardia, gurdizain, harakin, hargin, igeltsero, ikasle, industrial, inude, jernalari, jostun, kamineru, kapilau, kapitalista, kapitan, karabeneru, kardatzaile, koltxoigile, kontatzaile, labezain, latortzile, letoigile, lisatzaile, lur-neurtzaile, morroinagusi, maisu, mandazain, marinel, marino, mediku, merkatari, moja, morroi, musikari, nabigatzaile, nekazari, neskame, ofizioagabe, okin, ondasundun, organista, ortuzain, ostalari, perratzaile, pintore, pobre, sakristau, saregile, sastre, señora, sukaldari, tabernari, teniente, tentel, tindatzaile, tratulari, txaplatagile, udal langile, udaltzain, upelgile, zapata-tari, zigarrogile, zirujau.

Zenbakien arabera ordenatuz gero; hau da, langile gehien duen lanbidetik gutxien duenera, honakoa litzateke hurrenkera: arrantzaile, jostun, nekazari, jernalari, arotz, neskame, morroi...

Datu asko atera daitezke erroldatik, baina lau besterik ez ditugu aipatuko hemen:

- ♪ 1.367 gizonezko eta 1.636 emakume zeuden Lekeition 1861eko abenduaren 24ko gau hartan, errolda egin zenean; 3003 pertsona, guztira.
- ♪ Lautik hiruk ez zekien idazten.

- ♪ Hamarretik zazpik ez zekien irakurtzen<sup>5</sup>.
- ♪ Hiru gaztek euren burua musikaritzat jo zuten: Jose Antonio Inxusagarri (12 urtekoa), Daniel Arana (19), Salvador Amilibia (16). Erroldako laugarren musikaria Juan Mari Altuna (32) da. Fruituak ematen hasia da, beraz, musika eskola.

## 1867

Arreta handiz irakurtzen ohitu naiz denboraren harian lerratutako udalerriko gertaera nabarmenenak, paper horizkatuetan tintaz idatziak, elkarrekin kotoizko hari kiribilduz josiak eta azal gogor zaharkituko karpitetan gordeak.



1866. urtean hasten den Udal akta-liburua, LUA 960

Baina jakin mina biztu arren, gehienek ez didate aparteko arraiduririk eragin; ez, behintzat, 1867ko martxoaren 7ko udal aktak bestekorik; bertan, udalbatzak gazte batzuek aurkezturiko eskutitza lantzen du eta eskutitzean gazteek laguntza eskatzen diote udalari musika banda bat sortzeko. Ez da berria, 1845ean ere antzeko eskaera egin baitzen, baina oraingoan diru eskasia estalgune hartuta eskaera atzera bota beharrean, helburuak zehazteko eskatzen dizkie udalak gazteei. Ernetzear dagoen landareak lurra arrakalazten diharduela dirudi, beraz. Hara hemen aipaturiko aktak dakarrena:

### 1867ko martxoaren 7ko akta

*1867ko martxoaren 7an, udaletxeko batzar gelan, zinegotziak eta Jose Dionisio Goikoetxea alkatea bilduta, gazte talde batek igorrita-*

*ko eskutitza irakurtzen da. Bertan, gazteek laguntza eskatzen diote udalari instrumentuak erosteko, herrian txaranga edo musika talde bat eratzeko xedez. Udalak erantzuten die, txaranga edo musika talde horrek bere eginkizunak zehazten ez dituen bitartean, ezin izango dietela ez baietzik ez ezetzik eman. Beraz, egin beharrekoak egitera gonbidatzen dituzte.*

Hortik aurrerako orri guztiak berdin horixkak izan arren eta tinta beltz berberaz idatziak, koloretsu ikusten nituen, susmoa bainean laster agertu behar zuela Lekeitioko lehen musika bandaren jaiotze datak. Eta hara, hor, non, 1867ko urriaren 14ko udal aktak horixe iragartzen duen.

Irakurtzean, zirrara berezia sentitu nuen, hotzikara gozoa bizkarrezurrean gora; gerrarik gerra, paperik paper eta hipotesirik hipotesi ibiltzea fruitua ematen ari baitzen: ezina ekinez egina. Badugu, bada, Lekeitioko lehen musika bandaren jaiotze datatzat har dezakeguna: 1867ko urriaren 14a.

### 1867ko urriaren 14ko akta

*Musika batzordeak eskatutako diru laguntzaz honako erabakia hartzen da Osoko Bilkuran: Udalak 1.200 erreal emango dizkio musika bandari, urtean, eta horren truke, egun hauetan musika joko du bandak: Urteberri egunean, Errege egunean, Aratusteetako hiru egunetan, Ostegun eta Ostiral santuetan, Pazko egunetan, San Juan egunean, Ama Birjinaren egunean, San Pedro egunean, Corpus Christi egunean, Santiago egunean, Sanantolinetan, Errosario egunean, banderak ateratzen direnean eta alkatearen iritiz bereziak diren egunetan. Horrez gain, uztaileko eta abuztuko arratsaldeetan Alamedan joko dute, 18:30etik otoitzeko ordura arte.*

*Udalaren 1.200 errealak jasotzeko beste baldintza: musika bandak 20 instrumentu izatea, gutxienez.*

*Horrez gain, ukatu egiten zaizkie eskatutako aparteko 1.000 errealak, emandako subentzioa aski baita 24 instrumenturaino erosteko; kontsultatu dituzten adituek hori diote, behintzat.*

Baldintza guztiak onartu zituzten, antza, zeren 1867ko azaroaren 4ko ordainagirian hauxe baitator idatzita:

*Candido Garabilla udaleko diruzainak 240 ezku<sup>6</sup> eman dizkiola Jose Ventura Iburguengoitia zinegotziari bandarako instrumentuak erosteko, udalean erabaki zen moduan.*

Badaukagu lehenengo musika banda; ez dakigu noiz jo zuten lehenengo, ez nortzuk osatzen zuten, baina bai noiz sortu zen eta horixe jakitea zen lehen helburua.

## 1868

Gauza asko gertatuko zen 1868an, Lekeitioan, zalantzarik gabe, baina hiru baino ez ditut aipatuko hemen: helduentzako gau eskolak, Altunaren heriotza eta Espainiako erreginari etorrera.


### Gau eskolak

Garai hartako populazioaren hiru laurdenak ez zekien ez idazten, ez irakurtzen; beraz, helduak alfabetatzeko gau eskolak antolatu behar izatea eta irakasle bi<sup>7</sup> jartzea horiek kudeatzeko, gizartea berritzen ari zenaren seinale argia da. Eta sortu berria zen musika banda zein gau eskolak inarrosaldi kultural horren lekuko dira.

<sup>6</sup> Ezkutuari zortzerleko ere deitzen zioten, zortzi errealean balioa zuelako.

<sup>7</sup> Antonio Sacristan eta Francisco Zelaia.

<sup>5</sup> Irakurri eta idatzi gazteleraz, noski, euskaraz ez baitzen irakasten.



Juan Mari Altunaren heriotza-akta. BEHA

### Altunaren heriotza

1868ko ekainaren 12an hil zen Juan Mari Altuna, bularrekoak jota. Ez zen izan bakarra, guztira 9 hil baitziren tuberkulosiaz; 27 istripuz; 13 beherazkoaz; 17 sukarrez; 7 tifusez; 13 zaharraren zaharrez eta bakarra bihotzekoak jota.

Hildakoen familiak, normala denez, euren senideen heriotza sentituko zuten besteean ez bezalaxe, baina susmoa daukat Juan Marirena herri osoak sentitu zuela, maitatua izan zelako, kultura-egarria susperzen egindako ahaleginagatik, bereziki musikaren arloan.

Eliz-artxiboan datzan lur-emate agiria atal bitan bananduta dago: ezkerrekoan, Juan Maria Altuna, musika irakaslea dakar; eskuinekoan, haxe, besteak beste: 1868ko ekainaren 13an ehortzi zutela Lekeitioko hilerrian, tisisez hildako Juan Maria Blas Altuna Maskarua jauna. Leku-koak Pedro Barainka sakristaia eta Jose Antonio Gabiola enterradorea.

Jaiotzez durangarra zena, heriotzaz lekeitiarra dugu.

Altunaren heriotzak umezurtz utzi zuen musika mundua, baina ez hilik; musika bandak, adibidez, 1868ko uztailaren 24an Antiguako amaren prozesioan jo zuen; hala dio, behintzat, udal kontuen 59. libramenduak: 8 ezkutu eta 400 milaren ordaindu zitzaizkiola bandari, prozesioan parte hartzeagatik. Diru hori Francisco Intxusagarri udaltzainak jaso zuen. Beraz, banda badagoela badakigu, baina ez nork osatua, ez nork zuzendua.

### Isabel II

Isabel II.a, Espainiako erregina, 1868ko abuztuaren 11an heldu zen Lekeitiora Donostiatik, itsasontziz. Psoriasis osatzeko, eguzkia hartzea eta itsasoan bainatzea gomendatu zioten medikuek. Hondartza gaineko Uribarren jauregia hartu zuen bizitoki. Hamar urteko Alfonso semea<sup>8</sup> eta gorteko zenbait pertsona<sup>9</sup> etorri ziren berarekin.

Erreginaren etorreraren kariaz osatutako jai batzordeak hainbat ikuskizun antolatu zituen errege familia eta gortea entretenitzeko: txistulariak, musika banda, korua, ezpatadantzariak, su artifizialak, estropadak, masta-puntakoa, antzarrak, itsasora txangoak ...

Eta diru partidetan, musika bandari ardoa erosteko emandako diru kopuru bat ere badator. Laster hasi zen psikotropikoekin banda gaztea, baina erreginaren aurrean jotzeak sortutako tentsioa baretzea zeukan aitzaki.

### Paperik paper

1872an kitatu zuen udalak bandarekin zuen urteetako zorra, Claudio Algortari diru partida batzuk ordainduz: 1872/02/09an 600 pezeta<sup>10</sup>, 1872/08/01an 1.500 erreal, 1873/02/04an beste 1.500 erreal. Ordainagiritan jartzen duen karguari erreparatuz, musika bandaren hastapenetan Claudio Algorta izan zela buru ematen du.

1873tik 1876ra, II. Karlistaldi<sup>11</sup> bete-betean, ez dut musika bandari buruz ezer aurkitu. Logikoa, bestalde: batetik, litekeena delako musikariak gerrako frontean egotea, eta, bestetik, gerrako gastuei aurre egiten ere aski zeukalako udalak; 1876an, adibidez, udalaren gastu orokorra 30.919,21 errealekoa izan zen eta gerrako gastua bikoitza baino gehiago: 68.727,5 errealekoa.



Claudio Algorta

1877an hasten da, berri, musika banda agertzen, Pablo Mugikaren eskutik, hala dio behintzat 1877/05/11ko ordainagiriak. 1879an eta 1880an musika bandak "Charanga Lequeitiana" izena hartzen du, Pedro Garamendi du arduradun eta 13 musikarik osatzen dute. Musikariek erreal bi kobratzen dituzte emanaldiko.

Laurogeiko hamarkadan (1881-1890) Casimiro Etxeberria izango da musika bandako zuzendaria.

<sup>8</sup> 1874an Espainiako errege izango zen Alfonso XII.

<sup>9</sup> Gortearekin batera hurbileko aholkulariak, Sor Patrocinio lekaimea, Antonio Maria Claret konfesoia, Carlos Mafori maitalea ...

<sup>10</sup> Pezeta 1868an ezarri zen Espainiako txanpon gisa.

<sup>11</sup> II. Karlistaldia: 1872-1876.



### Casimiro Etxeberria

1924ko maiatzaren 6an hil zen Lekeition Casimiro Etxeberria Akarregi jauna, hirurogeita hamabi urterekin; beraz, 1852an jaioa zen. Upelgilea lanbidez. Hil zenean, Gregoria Uribarren emaztearekin izandako hamar seme-alabetatik bederatziz bizirik zeuden: Anizeto, Modesto, Eugenio, Higino, Jose, Filomena, Julian, Rosario eta Domingo.

1881ean aurkitu dugu, lehenengoz, Casimiro musika bandarekin lotuta. Urte horretako urriaren 5ean, musika bandaren zerbitzuengatik faktura aurkezten dio Casimirok udalbatzari; hain zuzen ere, uztailleko

eta abuztuko domeketako musika emanaldiena eta jai egunetako kalejira, prozesio eta plazako saioena. Hamahiru musikarik osatzen zutela musika banda agertzen da fakturan, ekitaldiko erreal bi kobratzen zizutela – prozesioetan lau –, eta guztira 832 erreal zizkiola zor udalak. 1881eko urriaren 11n sinatzen du ordainagiria Jose Antonio Amias alkateak, zorra kitatzeko.

Hurrengo urteetako hainbat faktura aurkitu ditugu – pare bat urteko – Casimirok udalari aurkeztuak plazako emanaldi, kalejira, prozesio eta serenatengatik – jende inportanteari harrera ekitaldiak –. Fakturatan, Casimiro musika bandako arduradun, zuzendari edo *musiko-maiorisara* agertzen da. Musikari kopurua aldakorra da, baina hamazazpi hamazortzi inguruan dabil. Atentzioa deitzen du urtearen lehen erdialdean egiten zen kalejira kopuruak: 18.

Fakturak “Charanga Lequeitiana” taldearen izenean aurkezten ditu Casimirok, baina dirua musika bandari ematen dio udalak; beraz, bata eta bestea sinonimotzat zeuzkaten; izan ere, txaranga banda txikiei deitzen zaie musika argotean.

Herrian gertatzen zen ohiz kanpoko guztiari erantzuten zion, antza, musika bandak. Hara, adibidetzat, Pascual Abaroaren enterrurako Casimirok idatzitako hileta-martxa.

Hamar urte nekezago, 1891an, eten egin zen Casimiroren eta udalaren arteko harremana; zergatia jakiteko, Casimiroren seme Eugeniok Rufo Atxurrari idatzitako gutuna<sup>12</sup> ekarriko dugu hona:

*“Aldi hartan, oso bizitza txiroa generaman. Upelgile lanagatik aitzak jasotzen zuen soldata ez zen aski etxeko beharrizanei erantzuteko; gurean, izan ere, gurasoez gain hamar neba-arreba bizi baikinen. Musika bandatik jasotzen zuen apurtxoak – bandako zuzendaria baitzen – ez zuen askotarako ematen. Eta bera bezala zeuden gainontzeko musikariak ere.*

*Egoeraz kezkatuta, On Jose Felix Egilior<sup>13</sup> alkatearengana jo zuen udatiarrei – On Pascual, On Claudio, On Jose Luis ... – serenatak jotzeko baimen eske, haiengandik jasotako eskupekoek egoeraren garratzasuna goza ziezaiketelakoan. Baina alkatearen erantzuna ezezkoa izan zen,*

*eta modu txarrean erantzun behar izan zion, gainera, zeren une horretan bertan utzi baitzuen, aitak, musika banda.*

*Musikari guztiak egin zuten bat zuzendariarekin eta aste gutxiren buruan beste banda bat sortu: La Independiente izenekoa. Herriko ahotsik onenekin orfeoi bat ere sortu zuen handik gutxira, eta antzerki munduan ere egin zuen dzangadatxoa, zenbait antzerki obra herrian antzetzuz.*

*Alkatearekin izandako istilutik sormena areagotuta atera zela esan dezakegu, ordura arte ez bezala, lanean etenak egiten hasi baitzen, bururatzeko zitzazkion piezak – habanera, mazurka ... – pentagramara erorteko. Inspirazio une horietan, lantokiko bazter batera erretiratzeko, inoren hotsik entzun ez zitekeen lekura, eta arkatx lohi batekin musika paper lohi batean idazten zuen buruan zeukana. Gero, idazkariari (niri neuri) ematen zion (zidan) garbira pasatzeko eta instrumentu bakoitzari zegokiona idazteko.*

*Istilua izan ondoren, alkatea banda berri bat antolatu beharrean aurkitu zen, eta kostata lortu zuen, aurrekoei ukatu ziena hauei onartuz.*

*La Independiente-k, ordea, herri barruan jotzea debekatuta zekana, eta alboko herrietara joan behar izaten zuten: Mendexa, Ispaster ... Behin, Eluntzetan<sup>14</sup> antolatu zen jai bat animatzera gonbidatu zuten La Independiente; ordu berean, herriko plazan jotzen zuten udalaren bandak. Eluntzeta jendez mukuruko bete zen bitartean, plazara arimarik ere ez zen arrimatu. Datu kezagarria dena kontrolpean eduki zale ziren agintarientzat.*

*Aratuste batzuetan, Estudiantina bat sortu zuten. Txamarra orlegiz, praka beltzez eta lumaz apainduriko txano gorritz mozturrotuta ibili ziren, herriz herri, musika jotzen: Bermeo, Gernika, Elantxobe ... Arrakasta itzela lortu zuten, eta horrek lagundu zien herrimina baretzen”.*

Horra, hor, zelan kontatzen dion Casimiroren seme Eugeniok Rufo Atxurrari gertakaria. Orain, alkateak udalbatzari ematen dion bertsoia irakurriko dugu.

1891ko urriaren 4ko Osoko Bilkuran Jose Felix Egilior alkateak musika bandaren berrantolaketaz dihardu. Alkateak diotso udalbatzari txaranga desegitearen kausa zuzendariaren<sup>15</sup> jarreraren zetzala. Serenata baterako baimen eske joan zitzaioela eta berak ukatu, egitekoa zen ordua (gaueko hamarrak) desegokia iruditu zitzaioelako. Ezetzaren aurrean, zuzendariak dimisioa aurkeztu ziola. Hasieran, ia musikari guztiak ere txaranga uzteko prest agertu zirela dio, baina, gero, gehienek aldatu egin zutela iritiz.

1891ko urriko aktetan esaten denetik ondorioztatu dut alkatearen eta zuzendariaren arteko talka 1891ko udazkeneko ekinozioan izango zela, irailaren 21, 22 edo 23an; egun aproposa, bestalde, serenata batekin agur esateko udari eta ongi etorria emateko udazkenari. Agidanez, aste bete itxaron behar izan zuen alkateak musikariaren txaranga uzteko asmoa iraul zedin<sup>16</sup>, irailaren 30ean hitzarmen batekin agertu baitzitzairen entsegu-lokalean. Hitzarmena 23 puntuz osatua zegoen, euren artean honako hauek: instrumentuak udalarenak izango zirela, baina matxuren konponketak, entseguetarako lokalaren alokairua, argizatzea, partiturak eta gainontzeko gastuak bere kontutik ordainduko zituela musika bandak; udako jaiegunetan plazan musika jotzea eta

12 Bizkaiko Aurrezki Kutxak 1988an argitaraturiko “Lekeitio” izeneko aldizkarian agertzen da. 13 Jose Felix Egilior alkatea 1853an jaio zen Lekeition. II. Gerra karlistan, “Marquina” batailoi karlistako banderaduna izan zen, 1873tik 1876ra. Bilboko setioan ere ibilia zen. Santiago Bandoarmaetxea alkateordea, berriz, ofiziala (teniente edo kapitain) izatera iritsi zen II. Karlistaldian; beraz, garai hartako udalbatzan karlisten presentzia nabaria zen.

14 Eluntzetako baserrian dago Lekeitio eta Ispaster banatzen dituen mugarrira; beraz, musika bandak jo al zuen Ispasterren eta jendeak dantzatu Lekeition.

15 Zuzendaria Casimiro Etxeberria zen.

16 Berez gertatu ote zen, ala alkateak jarritako bitartekoei esker?



Paskual Abaroaren hileta-martxa, 1889

Casimiro Etxeberriak  
konposatutako habanera, 1895

zehaztutako prozesioak<sup>17</sup> musikaz laguntzea izango zela txarangaren lana; lehen mailako jai egunetako kalejirak musikaz girotuko zituztela; zezenketa egunetan musika joko zutela zezen plazan; norbanakoei serenatak eguerdian joko zizkiotela eta udalak harrera egin behar zion norbait (gobernadore, diputatu ...) herrira zetorrenean, txarangak musika dohainik jo beharko zuela; hitzarmenaren iraupena urte betekoa izango zela, eta urtero berretsi beharko zela irailaren amaieran; urteko musika emanaldi guztiengatik<sup>18</sup> 5.000 erreal ordainduko zitzaizkiela musikariei eta 500 erreal zuzendariari.

Musikariak aho batez onartu omen zuten hitzarmena.

1891ko urriaren 13ko Osoko Bilkuran Jose Felix Egilior alkateak txaranga berrantolatu zuela ziotson udalbatzari eta hitzarmenaren berri eman. Ondoren, Tomas Etxeberria zinegotziari aretoa uzteko eskatu zion [alkateak], bere seme Casimiroren idatzi bat irakurriko zelako. Idatzian Casimirok hauxe zioen: hainbat urtez aritu zela txaranga, zuzendari lanetan, herri-agintaritzak emandako aginduei men eginez, udala eta herria pozik gera zitezen ahalegin guztiak eginez eta egungo eta aurreko alkate jaunen iradokizun txikienak ere betez; ezezko batek eragindako haserrealdi baten ondorioz, agian errespetu gutxiagoz jokatu ahal izan zuela alkatearekin, baina lehen unea igarota, bere izenean falta horren barkamena eskatuko zuen pertsona bilatu zuela, eta, geroago, berak pertsonalki eskatu ziola barkazioa; agintari horren agin-

duei men eginez, udaletxean herriko instrumentuak ez ezik, bereak ere entregatu zituela, baita bere jabetzako konposizioak ere; herrian zabaldu zen zurrumurrua esanez aparteko txaranga antolatzen zebilela ez zela egia; hainbeste urtetako zerbitzuek asaldura-une bateko jokabidea ezabatzeko aski izan beharko zuketela, eta, beraz, udalbatzak bere kargua uztea bidezkotzat joez gero, bere jabetza partikularreko objektuak emateko eskatzen du.

Udalbatza idatzia eztabaidatzen hasten da. Alkateak dio Etxeberria jauna zuzendari kargutik kentzea ez zela errespetu faltagatik izan, zuzendariak dimisioa aurkeztu zuelako baizik. Gertakariaren biharamunean, hirugarren pertsona baten bidez eskatu ziola [Casimirok] karguan segitzea, baina ezinezkoa zela konpromiso batera iritsia<sup>19</sup> zelako gainean zegoen Arrosarioko<sup>20</sup> prozesioa musika barik gera ez zedin. Era berean, egia zela Etxeberria jauna helburu berberarekin joan zitzaioela, baina ordurako txaranga berrantolatua zeukala eta txarangako kideek zuzendaria aukeratuta; beraz, ezinezkoa zela Etxeberriak nahi zuena eskuratzea. Egia zela, halaber, [Casimirok] instrumentala entregatu zuela, eta berak ere agindua emana zuela Casimiroren bere jabetzako gauzak itzultzeko.

Kargutik kanpo, 1892ko urtarrilaren 31n, Casimirok baimena eskatu zion udalari musika banda bat eratzeko. Alkatea ez ematearen alde agertu zen, banda berriari baimena ematea eztabaida-lehia-liskar-haziak ereitea zatekeelako, eta Casimiroren eskabidea forma akatsetan

<sup>17</sup> Ostegun eta Ostiral Santu egunekoak, Pazko egunekoak, Corpus egunekoak eta San Antolin egunekoak.

<sup>18</sup> Musikariak ez zekiten urtean zenbat emanaldi izango zituzten, harrera nori egin behar zitzaion alkateak erabakitzen baitzuen. Gerora, bandaren historian, soldatarekin batera, zehazgabetasun hori izango da gatazka gehienetan iturburu.

<sup>19</sup> Zuzendaria berronartzea aski izango zen, bada, Arrosarioko prozesioan musika bermatzeko ez, baina kontatzen ez duen arrazoiaren bategatik ez zegoen prest horretarako.

<sup>20</sup> Urriaren 1ean egiten omen zen prozesioa.

oinarrituta ukatzeko eskatu zuen, balizko banda horrek barne-araudirik ez zuelako aurkeztu.

Hiru urte nekezago, 1895eko irailaren 8an, berriro eskatu zion Casimirok udalari banda bat eratzeko baimena. Alkatea ez ematearen alde agertu zen, baina Garabilla zinegotziak erantzun zion Casimirok banda eratzeko eskubide osoa zuela. Hurrengo asterako geratu zen eztabaida. Orduan, irailaren 15ean, Okamika zinegotziak adierazi zituen eskatutako baimenari ezetza emateko arrazoiak: herrian bazegoelako lehendik ere musika banda bat; esperientziak zioelako banda bat baino gehiago izateak liskarrak sor zitzakeela, Durango eta Deba adibideak; Etxeberria jaunak eskatzeko eskubidea izan arren, eskubide oro ordena publikoaren mende egon behar zelako; Etxeberria jaunari 1892ko urtarrilaren 31n baimena ukatzeko kontuan hartu ziren inguruabarrak, balekoak zirelako oraingoan ere.

Ostean, Anduiza jaunak hartu zuen hitza.

Okamika jaunak azaldutako gogoetei erantzun zien; adierazi zuen bere ustez ez zegoela arrazoirik banda berriaren sorreraren inguruko asaldura eta ika-miken beldur izateko, eta nabarmendu zuen bai Etxeberria jauna zein banda osatuko zuten gainerako pertsonak errespetuzko jendea zirela, ohitura onekoak, eta hori ezin zuela inork zalantzan ipini, eta adierazi zuen, halaber, eskatzen zen baimena ematea, udal bandarentzat ere estimulagarria izan zitekeela, konpetentzia akuilagarri gerta zekiokoelako.

Azkena hitza hartzen Alkate jauna izan zen. Etxeberria jaunak zuzendari karguari uko egin zionekoa gogorarazi zuen, berriro; atsekabea sustatzen maixutzat jo zuen Etxeberria jauna, banda berriarekin tematzeagatik, eta eskatutako baimena ukatzeko eskatu zion udalbatzari.

Bozketan, banda berria baimentzearen alde bozka bakarra agertu zen, Anduizarena, baimenaren kontra bost, eta bi abstenitu egin ziren.

Baina hor ez zen amaitu kontua, hirugarren astez ere Casimiroren bandaren inguruan jarraitu behar izan zuten hitz egiten alkateak eta zinegotziek. 1895eko irailaren 22ko Osoko Bilkuran Garabilla jaunak hartu zuen hitza esateko Anduiza jaunarenarekin batzeko bere botoa banda bat osatzeko baimenari buruzko gaian, eta ondoren, Etxeberria jaunaren auzia ez onartzeak eragiten zuen arbitrariotasuna nabarmendu zuen, aditzera emanez, legeen babespean, herritar guztiek zutela legezko lanbideren bat askatasunez egikaritzeko ahalmena; umekeria zela banda berriaren ezarpenak ordena publikoa asaldatzea zekarkeela esatea, eta, gainera, hori gertatuz gero, agintaritzak bazituela konpontzeko baliabideak.

Ondoren, Jose Lucio Etxeberriaren<sup>21</sup> gutuna irakurri zen, non udalbatzari esaten zion iraila amaitzean berretsi behar zela udalaren eta udal bandaren arteko hitzarmena, eta, bera, Jose Lucio, egungo udal bandaren konpromiso guztiak betetzeko behar besteko musika ezagutzak zituena, udalaren bost mila eta bostehun errealeko diru laguntza hiru mila errealer murrizteko prest zegoela eta diru horren truke lan guztiak betetzeko zein betearazteko.

Hori aurkezteko motiboez espekulatzen jardun zuten zinegotziek, eta alkateak galdetu zienean aintzat hartuko zuten ala ez proposamena, baiezkoaren alde hiru agertu ziren, kontra sei.

1896ko otsailaren 15eko EL NOTICIARIO BILBAINO egunkarian

hauxe irakurri ahal izan dugu<sup>22</sup>, A.S. delako batek idatzia: “Casimiro Etxeberria jaunak zuzentzen duen Estudiantina egiten ari den entsegutara joan naiz, eta oso pozik geratu aireak aukeratzeko orduan nagusi den gustu onaz, baina haien exekuzio magistralaz ere. Estudiantina honen Inauterietan<sup>23</sup> inguruko herri batzuk bisitatzea espero du, hala nola Bermeo, Mundaka, Gernika, Elantxobe eta Ea. Horietan, egunean zehar inauteriak girotzeaz gain, entseguan dituzten hiru zarzuela politen antzeppen batzuk emateko asmoa ere badute. Sentitzekoa da dibertitzeko hain elementu onak [Estudiantinak], egunik onenetan, herritarrak utzi behar izatea, baina uste dut hemen aipatzekoak ez diren nahigabeek eragina izan dutela erabakian”. Datatuta geratzen da, beraz, Casimiroren seme Eugeniok Rufo Atxurrari igorritako gutunean aipatzen zuen Estudiantinaren alboko herrietara egindako osterata eta antzerkien nolakotasuna: zarzuela.

1897ko apirilaren 4an serenatak jotzea debekatzen zaio *udal bandari*, *udan hiribildu honetan hilabeteak pasatzera etortzen diren familiek maiz jasaten dituzten aparteko gastu eta molestiak saihesteko*, baina musikari galera ekonomikoak konpentsatzeko, soldata igoko zaie. Antza, beste motibo bat era bazegoen debeku horren atzean, herrian zeuden bi musika banden – bata udalarena eta bestea partikularrena<sup>24</sup>– arteko talkak eta lehiak saihestea<sup>25</sup>.

1899ko uztailaren 1ean Jose Felix Egiliorrek alkateza utziko du eta Juan Pedro Akordagoikoetxeak hartu. Handik gutxira, uztailaren 9an, Valdes zinegotziak Osoko Bilkuran proposatuko du herrian dauden banda bien artean banatzea eginkizunak zein diru-laguntzak, parte berdinetan. Zinegotziak ados daude proposamenarekin eta alkateari ematen diote zuzendariekin biltzeko ardura.

1899ko uztailaren 16an alkateak bandetako zuzendariekin egindako gestioaren berri eman zion udalbatzari. Udal bandako zuzendari Andres Aranberriren esanetan, *irailaren amaierara arte beraiei zegokien musika jotzea, orduantxe amaitzen baitzen udalarekin hitzartua zuten ituna, urtez urte berretsi ohi izan zutena*. Data horren ostean, prest agertu zen Casimiroren bandarekin eginkizunak eta diru-sariak banatzeko. Casimiro Etxeberria ere prest agertu zen udalaren proposamena onartzeko. Osoko Bilkuran iradokizun asko entzun ziren, baina, azkenean, aurrera atera zena hauxe: irailaren amaierara arte Aranberriren bandaren nahia errespetatuko zela, bitarte horretan Casimiroren bandak serenatak joko zituela eta hortik aurrera eginkizunak zein diru-sariak banda bien artean banatuko zituztela.

Baina, agidanez, ez zen akordiorik gauzatu, zeren 1899ko irailaren 24ko Osoko Bilkuran udalbatzak Aranberriren bandarekin hitzarmenik ez berritza erabaki baitzuen, urriaren bateko Arrosarioaren prozesioa bandarik barik egitea eta Andres Aranberri instrumentu guztiak itzultzeko eskatzea.

Aranberri entregatutako instrumentuak –bonbo bat, danbor bat, txindata pare bi, baxu bi, hiru bonbardino, hiru tronboi, hiru oboe, fliskorno bat, hiru tronpeta, errekin to bi, flauta bat, hiru klarinete, lau karpeta eta hamaika farola– 800 pezetatan tasatu zituzten udalaren adituek eta enkantera ateratzea erabaki udalak. Halaber,

22 Aitor Iturbe Gabikagojeaskoak aurkitu du albistea.

23 1896eko *karnabal martitzena* otsailaren 25ean izan zen.

24 Casimiroren *La Independiente*.

25 1897ko apirilaren 18ko Osoko Bilkuran horixe esplizitatzea eskatzen du Okamika zinegotziak.

21 Jose Luzio Casimiroren anaia zen.

Presente al Sr. D. Juan de los Rios  
 Casimiro Etxebarria

Artista	Instrumentu	Pezetakoa	Udalak
Antonio	1. Violin	36	36
...	...	...	...
Total			1102

Casimiro Etxebarriak udalari aurkeztutako fakturak, LUA

udal musika banda konkurtsora ateratzea ere erabaki zen 1900eko martxoaren 11an.

Konkurtsuaren oinarrietan haxe irakurri dugu:

Musika bandak gutxienez hamasei musikari eta zuzendaria izan behar zituela; bandaren funtzionamendurako behar zen guztia (tresneria, lokal, kandela, partitura ...) bandaren kontura izango zela; aurreko bandakoekin hitzarmenean agertzen ziren funtzioak beteko zituztela, eta eginkizun horien guztiengatik, urtero, 1.250 pezetako soldata jasoko zutela, lau hiruhilabetekotan ordaindua.

Enkantea idatziz egin zen, eta, bertan, Andres Aranberri instrumentu guztiak erosteko prest agertu zen 250 pezetatan; Casimiro Etxebarria tronboi bi, tronpa bat eta fliskorno bat erosteko prest 145 pezetatan; eta Telesforo Gartzia fliskorno bat erosteko 30 pezetatan. Andres Aranberriren eskaintza atzera bota zen, 800 pezetatan tasatuta zegoe-lako lotea eta Casimiroren saldu zizkioten eskatutako instrumentuak.

Enkantea egin zen egun berean, 1900eko martxoaren 18an, amaitzen zen udal musika banda osotzeko eskaerak aurkezteko epea. Epe barruan konkurtsorako eskaera bakarria agertu zen udaletxean, Casimiro Etxebarriarena. Beraz, Casimiroren banda izendatu zuten udal musika banda.

Horra, hor, herrian musika jotzea urte luzez debekatuta izatetik Lekeitioko Udal Musika Banda izatera zelan heldu zen *La Independiente*, 1900eko martxoaren 18an.

Martxa onean zihoan banda, harik eta gauzak okertzen hasi ziren arte 1902an.

1902ko urtarrilean gutun bidez jakinarazi zizkion Casimirok udalari musikariaren kexak soldataren kausaz, eta musikariei soldata igotzea eskatu.

Pasarte batean haxe dio: "Aurreko urtean, kontzeptu guztiengatik, serenatak barne, hamahiru ogerleko baino ez zuten irabazi musikariak. Eta udalbatza errespetagarri horrek ondo dakien moduan, kopuru hori gutxiegi da entseguen lan astuna eta udako eguerdi eta iluntzetako saioen zama ordaintzeko".

Erantzunik ezaren aurrean, batzorde bat eratu zuten musikariak udalari arlo ekonomikoa berrikus zezan eskatzeko. Hiru proposamen aurkeztu zizkion batzordeak udalari:

- Maiatzetik irailera bitarteko igande eta jai egun guztietan jotzea, urteko 2.900 pezetako soldataren truke.
- Apiriletik azarora bitarteko igande eta jai egun guztietan jotzea, urteko 3.500 pezetako soldataren truke.
- Urte guztiko igande eta jai egunetan jotzea, garizumakoetan izan ezik, 4.500 pezetako soldataren truke.

Beti ere, soldata horiek hamasei musikarientzat izateko eta zuzendaria aparte negoziatzeko.

Julian Gartzia, Jesus Akarregi eta Jose Zabaleta batzordekideek martxoaren 24an aurkeztutako eskabide gutunean, bandako kide guztiak artisauek zirela diote eta bandako jardunak denbora asko hartzen ziela, batez ere entseguak; hortik, igoera proposamena.

Udalak, antza, ez zuen onartu, haxe diotso-eta Casimirok udalbatzari 1902ko apirilaren 6ko gutunean:

*"Ahalegin askoren ostean lortu dut biharko ekintza erlijiosoarekin bandako musikari gehienak konprometitzea, baina horietako asko ez daude prest udako emanaldiekin jarraitzeko; ez, behintzat, udalbatzak proposatzen dituen baldintza ekonomikotan.*

*Nire iloba bi, hiru semeak eta neu bakarrik gaude jarraitzeko prest, eta ilobak ere, hasieran, ezezkoan zeuden.*

*Gainontzekoen ezezkoa erabatekoa da".*

Eta hementxe uzten dio *La Independientek* udal musika banda izateari, eta, halaber, Casimirok Lekeitioko udal musika bandako zuzendari karguari.

Aipatu, azkenez, Casimiro dela musika bandak historian izan dituen zuzendari guztietatik kalea daukan bakarria Lekeition.







### Agapito Hernández

1902an musika bandarik gabe aurkitu zenean udala, zuzendari plaza oposizio lehiaketara ateratzea erabaki zuten. Bederatzi pertsona<sup>26</sup> aurkeztu ziren oposiziora. Lehiakideak musika bandetako zuzendariak edo organistak ziren. Espedienteak eta merituak aztertuta, hiru hautagai proposatu zizkion batzorde hautatzaileak udalari<sup>27</sup>, bat aukeratzeko xedez: Agapito Hernandez, Juan Colás eta Higinio Otaduy. Udalak Agapito Hernandez izendatu zuen musika bandako eta musika eskolako zuzendari. 1902ko abendua zen.

Hogeita hamar urteko nafarrak<sup>28</sup> 1903 martxoaren 3rako eratu zeukan musika banda, 15 musikariz osatua: 5 lehen mailako, 3 bigarren mailako eta 7 hirugarren mailako.

Lehen mailakoek erreale bi kobratzen zituzten eguneko, 2. mailakoek erreale eta erdi eta 3. mailakoek erreale bat. Zuzendariaren urteko soldata, berriz, 1.500 pezetakoa zen.

Baina udaltzainen gustukoa ez bide zen jotzen zuten musika. Hara hemen gazte talde batek 1903ko ekainaren 7an udaletxean aurkeztutako idazkia:

*“Liskarrak saiheste aldera zuzentzen gatzaizkizue honako hau esateko: geu garela lehenengo interesatuak Euskal Herrian horren errotuak diren ohitura onak gordetzeko orduan, baina ez gaudela prest onartzeko jendaurrean dantzan egitea delitua eta bekatua dela zabaltzen ari diren udaltzainen jarrera umiliagarria, neskarik gabe geratzen ari baikara mutilok baltseorako orduan. Baltseoa bekatua balitz, denok geundeke, dagoeneko, kondenatuak, eta, delitua balitz, Zigor Kodeak islatuko luke; ez bata, ez bestea; beraz, bakearen izenean, bietako bat: edo uzten dio gure musika banda ederrak dantzan egiteko piezak jotzeari, edo agintzen diozue udaltzainei dibertitzen ari diren bikoteak bakean uzteko”.*

Gazteei erantzuna iritsi aurretik, musika eskola ere martxan jarria zuen Agapitok 29 ikaslerekin. Ikasleetako bat<sup>29</sup> pilotaren izar nagusietarikoa izango zen 1910eko hamarkadan: *Lekeitioko zapatagiletza* edo *Zapaterito de Lekeitio*.

Musika eskolako ikaslez elikatzen joan zen banda, urtez urte; 1906an 22 musikari izatera iritsi zen: 5 lehen mailako, 8 bigarren mailako eta 9 hirugarren mailako.


Jardunaldiei dagokienez, urte musikala zati bitan bananduta zegoen: udakoa, maiatzetik irailera; negukoa, urritik apirilera.

Udako aldian, zazprietatik bederatzietara bitarteko emanaldietan zazpi pieza jo behar izaten zituzten, gutxienez. Neguko aldian, berriz, Angelusa baino ordu erdi nekezago amaitzeko eran antolatu behar zen emanaldia, eta bost pieza jo, gutxienez.

Lehen mailako jaiegunetan<sup>30</sup>, udakoetan zein negukoetan, eta uztailaren 15etik irailaren 3ra bitarteko igande eguerdi guztietan jotzen zuen musika bandak alamedan, 11:30etatik 12:30era; eguerdian, gainera, kontzertuko piezak jotzen zituzten; iluntzetan, *baileak*.

Garai hartan jotzen zituzten musika obren zerrenda ere aurkitu dugu.

Eta suposatzen dugu pieza horiek, eurok, joko zituztela serenatetan ere, zeren serenatak izan baziren, zerrenda honek ziurtatzen duenez.



Serenatei dagokien diru-bilketa, 1903 LUA-L48/L49

Eta, jakina, argindarrik ez zegoenez garai hartan, entseguak kandelapean egin behar izango zituzten.

Zorrotza zen *nafar txikia*<sup>31</sup> eta bandaren funtzionamendu egokirako araudia idazteari ekin zion udalarekin batera.

Atentzioa deitzen du, adibidez, araudian kapitulu oso bat arau-hausleak zigortzeko idatzia izateak: *Berrogeita hamar zentimoko isuna izango du emanaldietara berandu iristen denak. Musika jotzen hasita heltzen bada, hogeita bost zentimoko isuna izango du huts egindako pieza bakortzeko. Entsegetara huts egitea edo berandutzea, hogeita bost zentimoko isunaz zigortuko da.*

26 Juan Colas Lopez, Cesareo Okariz Gomez, Agapito Hernandez, Jose Zabaleta, Jose Zaton Robledo, Juan Perea Isasmendi, Eulogio Antonio Elordi Zapirain, Justo Saizar Uskola eta Higinio Otaduy Iturrioz.

27 1902ko abenduaren 4an.

28 Nafarroako Vianan jaioa zen 1873an.

29 Valentin Castellanos Ziarreta.

30 Urteberri eguna, Errege eguna, Kandelario (otsailaren 2a), Pazko eguna, Asentsio eguna, Mendekoste eguna, Corpus Christi, San Juan, San Pedro, Domu santu (azaroaren 1a), Zizili deuna, abenduaren 8a eta abenduaren 25a.

31 Ezizen hori jarri zioten lekeitiarrek Agapitori.

Asteko entsegu kopurua ere zehaztuta dator araudian: *musika bandak hiru entsegu izango ditu astean, zuzendariak aparteko entsegurik proposatzen ez bada, behintzat.*

Entseguak ez eze, beste guztia ere zehazten du araudiak: musika bandan sartzeko prozedura, mailaz igotzekoa, ordainsariak, jardunaldiak, hutsegiteen kontrola, dimisioa aurkezteko epeak ...

1906aren amaieran aurkeztu zitzaizen musikariei araudi berria eta laster iritsi ziren erreakzioak: Lehen eta bigarren mailako musikariek batzorde bat eratzea eskatu zioten udalari araudiarekiko ezadostasunak negoziatzeko. Hirugarren mailakoek dimisio bidez agertu zuten araudiarekiko ezadostasuna, eta zuzendariak ere dimisioa aurkeztu zuen, arrazoi pertsonalengatik.

Lekeitiotik Donostiara joan omen zen, baina Bermeon ere bizi izan zen, garai batean, Garabillak Bermeon ireki zuen kontserba fabrikaren inaugurazioan agintarien artean ageri baita.

1936ko uztailaren 6an hil zen Lekeition, Apaltoa 18ko 1. solairuan. Maria Elordi emazte lekeitiarrarekin hiru seme-alaba izan zituen jaiotzak nafar eta heriotzak lekeitiar bihurtu zuen Agapito Hernandezek.


Berarekin bandan ibilitako musikariren zerrenda honako hau da:

Jose Aboitiz, Florencio Aizpurua, Guillermo Andonegi, Ramon Anzola, Ignacio Arana, Daniel Aretxabaleta, Domingo Atxurra, Jose Francisco Atxurra, Jose Martin Atxurra, Juan Badiola, Atanasio Egilior, Modesto Egilior, Juan Elordi, Melchor Elordi, Juan Erkiaga, Pedro Erkiaga, Jesus Errazi, Valentin Escribano, Zoilo Etxeberria, Remigio Galdeano, Antonio Garamendi, Balbino Gartzia, Juan Gartzia, Julian Gartzia, Nicolas Gomez del Castillo, Florencio Iturbe, Juan Iturbe, Justo Iturbe, Antonio Iturraran, Cruz Kortabitarte, Serafin Los Arcos, Daniel Odiaga, Gregorio Olivan, Roman Prieto, Jose Zabaleta, Jose Luis Zapirain.

TITULO	CLASE	AUTOR
La Cancion del Mareh	Marcha Arabe	Camilo
La Mueete de Portici	Ouverture	D.E.P.
Porrusalda n. 2.	--	J. Fra
El Conde de Luxem- burgo	Paso-Doble	J. Ceru
Buzkeria	---	Arin
Bamuncho	---	Gabrie
Rigodones Buzkaros	---	Torre
Bandera baten oroi- tza	Zortziko	C. Jau
Maruka	Preludio	A. VIV
Marika	Vantasia	Id.
Las Musas Latinas	---	R. Sou
La Pavana de Luz Nem	Gavota	Mariar
Marcha Militar	Marcha	R. So
Viva Polonia	Polonesa	Varela
La Alhambra	Serenata	Tomag

TITULOS	CLASE	AUTOR
Florinda	Habanera	M. S. Migou
Canela Pura	Tango	I. Iruska
Quiere me	Id	I. Amatriel
Preciosilla	Habanera	M.S. Miguan
JOTAS		
Viva la Pepa	Jota	M. S. Mige
Alza Mañica	Id	C. Aramban
Jota de la Zarzuela	Id	J. Valver
Congreso Feminista	Id	L. Rals os
Dicha Completa	Id	Candido A
La Locomotora	Id	Id
La Remataera	Id	P. Marton
Ole mi Niña	Id	C. Caball
El Duo de la Africana	Id	L. Garcia
Navarrita	Id	

Kandelen faktura, 1903 LUA L48/L49



TITULO	CLASE	AUTOR	LISTADO	GAVOTAS	AUTOR
J. Franco	Completo				
Jano Naya	Id			Gavota	J.M. Echey
Chase?				Id	C. Zibul
J. Franco	Completo				
	Id				
ONE-STEP					
Candido Albizu	Paritura			One Step	C. worsle
S. Miguel	Completo			Id	
Candido Albizu	Id				
JOTAS					
S. Miguel	Completo				
J. Naviti	Paritura				
Jose M. Bellver	Id				
S. de Leobide	Completo				
OTIS					
S. San Miguel	Completo				
Id.	Id.				
A. Milpaeer	Paritura				

Musika obren zerrenda LUA 1530/1



Antiguako Amaren prozesioa, 1904. Uste dugu agertzen den bandako zuzendaria Agapito Hernandez dela.  
Artiz-Colmenares artxiboa





### Migel Oñate

Agapitok eraturako musika banda desegiterainoko polemika biztu zuen araudiko 3. artikulua haxe zioen:

3. artikulua.- *Musika banda zuzendariak, 1. mailako 5 musikarik, 2. mailako 8 musikarik eta 3. mailako 12 musikarik osatuko dute. Zuzendari plaza oposizioz beteko da. Musikariak konkurtsoz kontratatuko dira, gaitasun azterketa bat gainditu ondoren; azterzaileak zuzendaria eta Ikuskaritza Batzordea izango dira.*

Beraz, argi zegoen nondik hasi musika banda berria antolatzen: zuzendari plaza oposizio lehiaketara deituz. Eta 1907ko apirilaren 15ean sinatu zuen Bruno Larrazabal alkateak deialdia. Gainera, ohiko lekuetan esekitzeaz gain, Bizkaiko Buletin Ofizialean eta egunkari hauetan ere agertu zen: Bilboko "La Gaceta del Norte" eta "Noticiero bilbaino"; Donostiako "El Pueblo Vasco".

Deialdiari hamar pertsonak<sup>32</sup> erantzun zioten eta epaimahaia apirilaren 25ean eratu zen, epaimahaikide hauekin: Buenaventura Zapirain, Severo Altube eta Benito Arin.

1907ko maiatzaren 10ean egin zen oposizio-azterketa udaletxeko batzar aretoan. Izena eman zuten hamar lehiakideetatik lau baino ez ziren aurkeztu: Juan Arrieta Aranburu, Feliciano Beobide Udakiola, Ignacio Gonzalez Eskala, eta Miguel Oñate Iribe. Egin zituzten ariketak udal-artxiboan daude gordeta.

Epaimahaia lau lehiakideen lanak goraiatzeko dituzten udalari igorritako txostenean eta ordena honetan sailkatzen lehiakideak: 1. postuan, Miguel Oñate, 2.ean Feliciano Beobide; 3.ean Juan Arrieta eta Ignacio Gonzalez, berdinduta.

Udalak 1907ko maiatzaren 22an izendatu zuen Miguel Oñate musika bandako eta musika eskolako zuzendari, eta data horretako Osoko Bilkuran erabaki hau hartu: arrazoiaren batengatik zuzendari plaza bakante geratuz gero, oposizio lehiaketako bigarrenari eskainiko zitzaioela bakantea betetzeko aukera; gero, hirugarrenari; gero, laugarrenari ...

Oñate 1868an jaio zen Donostian. Karrera musikal bikaina eta sariz zipriztindua egin ondoren, Donostiako Orfeoiko zuzendaria izan zen Lekeitiora etorri aurretik. 1896an alargundua, berriz ezkondu zen 1904an Maria Alkaiagarekin, zeinarekin hiru seme- alaba jaiotzez lekeitiar izan zituzten: Miguel Andres, Amparo eta Maria Luisa. Oñate Alkaiaga familia Trinidad kaleko 7. zenbakiko<sup>33</sup> 3. solairuan bizi izan zen.

Oñatek zuzentzekoa zen musika bandara sartzeko, eskabide kolektiboa egin zuten aurreko bandako 12 kidek, araudia betetzeko prest agertuz. Badira banakakoen gutunak ere, bandan sartzeko baimen eske. Solfeorik ez zekien abarketari bat ere aurkeztu zen txindaten azterketara ... Batzuekin eta besteekin 17 kideko musika banda osatzea lortu zuen, 1907an: 5 lehen mailako musikari, 8 bigarren mailako eta 4 hirugarren mailako.

Musika eskolari ere pultsua hartu zion, antza, 1907ko abenduan udalak zorion-gutun bat igorri baitzion, musika eskolaren maila ona eta musika irakasten erakutsitako grina goraiatzeko.

Baina arantza bako larrosarik ez dagoenez, 1912an nahigabea izan zuen, udalak espediente ireki baitzion, musika bandan antzematen ziren hutsuneen zergatiak argitzeko xedez.



Brachoren txostena, 1912. LUA 1446/2

Hutsuneen kausen txostenean, haxe dator Jose M<sup>a</sup> Bracho udaletxeko idazkariaren eskutik:

1912ko urtarrilaren 11ko Osoko Bilkuran, musika bandan antzemandako hutsuneen zioa aztertzeke espediente informatiboa irekitzea erabaki zen. Ikerketa bideratzeko, sei musikari elkarrizketatu zituzten Manuel Mendia alkateak, hiru zozketaz hautatuak eta beste hiru zuzendariak proposatuak. Zozketaz aterako musikarien kexa nagusia haxe izan zen: [zuzendaria] edanda zetorrenean, pieza zaharrak entseatzeko gaitzen zutela denbora, entsegua gaueko orduetara arte luzatuz. Zuzendariak proposaturikoan iritziz, musika bandak ez bazuen hobeto funtzionatzen, musikari nahikorik ez zeukalako zen. Iritzi berekoa zen aditu gisara deklaratu zuen Joaquin M<sup>a</sup> Belasko organista ere. Azkena deklaratzeko zuzendaria izan zen. Hark musikari gutxi izateari egotzi zion gaizki ibiltzearen errua eta musikarien migrazioaz jardun zuen; lehen mailako musikarietatik bost kanpora joanak zirela: seminariora bat, itsasora beste bat, karabinero beste bat, Ondarroara beste bat eta

32 Ernesto Jarque, Juan Arrieta, Eulogio Elordi, Feliciano Beobide, Ignacio Gonzalez, Hipolito Rodriguez, Miguel Gonzalez, Victor Miranda, Miguel Oñate eta Miguel Duaso.

33 Ateta berean bizi izan zen Juan Mari Altuna berrogeita hamar urte lehenago.




Joaquin Maria Velasco organistari omenaldia, 1913. Ezetz aurkitu Oñate euren artean!



Singerren bigotia. Miguel Oñatek moldatua



Oñateren piezak LUA



Bartzelonara bosgarrena. Bigarren mailakoetan zegoela mugimendurik gutxien, baina bat lagarto-lagartoa zela, kontuz ibiltzekoa. Hirugarren mailakoan artean bi Kaliforniara joanak zirela, beste bi Bilbora eta geratzen zen bat lagartoa zela, begien aurrean ez ikusteko hobe. Laburbilduz, musika eskolatik (bandan) sartzen zirenen kopurua handik ateratzen zirenean baino txikiagoa izanik, bakantez josita zegoela banda, eta horrela ezin zela luzitu. Azkenik, berak idatzitako piezen zerrenda agertu zuen, lana ahal zen ondoen egiten zuela erakusteko.

Lekukotasunak entzunda, irailera arteko epea eman zitzaion zuzendari bandaren funtzionamendua hobetzeko.

Laster hasi ziren putreak kanporatu gabeko zuzendaria ordeztuko euren burua eskaintzen, baina 1914ra arte jarraitu zuen Oñatek banda zuzentzen, eta egun konprometituetan – herriko jaietan eta ... – errefortzuak eskatzen.

1914ko uztailaren 18an aurkeztu zuen dimisioa, osasunez makal zebilelako. Gutunean, atxikitako dokumentazioa irakurtzeko gomentatzen zien zinegotzietan, batez ere bere gaitasunetan sinesten ez zutenei, eta jarraitzen du esanez 150 musika konposiziotik gora idatzi zituela Lekeitioko elementuak gaitzat hartuta eta udalari zentimorik ere kobratu gabe. Lekeitio beti eroango zuela bihotzean esanez amaitzen du gutuna.

Udalak uztailaren 18ko Osoko Bilkuran onartu zion dimisioa, baina araudia betetzeko eskatuz; hau da, beste hiru hilabetez karguari eusteko. Bilkura berean erabaki zuten Oñatekin oposizioan lehiakide izan zirenei idaztea, postua eskuragarri zutela jakinarazteko.

Hiru hilabeteak igarota, urriaren 23an utzi zuen musika banda, betiko, udaletxeari bandan geratzen zen guztia inbentariatuta.

Donostian hil zen, 1941eko urtarrilaren 21ean.

Lekeitioko gaiez idatzitako 150 piezak non ote daude? Ez ditugu inon aurkitu, baina esperantzarik ez dugu galdu, 2016ko udaberrian, etxe baten erauzte lanetan zebilela Isaias Gezuragak Oñatek bandarako egokitutako pasodoble bat aurkitu baitzuen. Pasodoblearen izena: Singarren bibotia. Ez zaizue ezagun egiten?

Berarekin bandan ibilitako musikarien zerrenda honako hau da: Florencio Aizpuru, Maximo Akarregi, Ignacio Aranberri, Jose Luis Aranberri, Daniel Aretxabaleta, Domingo Atxurra, Jose Martin Atxurra, Mateo Bengoetxea, Gualberto Bilbao, Jose Cano, Emilio Diaz, Jesus Egurrola, Juan Elordi, Melchor Elordi, Teodoro Elordi, Pedro Erkiaga, Basilio Errasti, Jesus Errasti, Valentin Escribano, Zoilo Etxeberria, Domingo Fresnedo, Remigio Galdeano, Alfonso Gartzia, Balbino Gartzia, Jose Gartzia, Juan Gartzia, Antonio Ituarte, Cruz Kortabitarte, Domingo Lapeyra, Paulo Legarza, Emilio Maruri, Francisco Mendiguren, Daniel Odiaga, Juan Odiaga, Gregorio Olivan, Jose Ordorika, Casimiro Prieto, Roman Prieto, Jesus Rivera, Candido Urkiaga, Benito Zabala, Julian Zabala, Jose Luis Zapirain, Florencio Ziarreta, Julian Ziarreta eta Constantino Zugadi.



Julian Ziarreta

### Julian Ziarreta

1914ko urriaren 24ko Osoko Bilkurako aktan irakurri ahal izan dugu, Miguel Oñatek bezperan amaitu zuela bandarekiko konpromisioa, eta bera ordezkatzeko etortzeko zen Feliciano Beobide Buenos Airesen zegoela, eta abendua baino lehen etortzea ezinezkoa zitzaiola<sup>34</sup>. Horren aurrean, udalak Julian Ziarretari ematen dio klaseekin jarraitzeko ardurara, eta banda behin behinean zuzentzeko.

Julian Ziarreta bandako zuzendari ordezkaria izan zen 1915eko otsailaren 25era arte. Hurrengo egunean, otsailaren 26an, Beobide hasi zen zuzendari lanetan.



<sup>34</sup> Atlantikoa zeharkatzea ez zuen erraza izango ez, urpekari alemanez josita baitzegoen lehen mundu gerraren kariatz. Lehen mundu gerra 1914ko uztailaren 28an hasi baitzen.



### Feliciano Beobide

Feliciano Beobide Udakiola tolosarra 1915eko otsailaren 26an hasi zen zuzendari lanetan, Lekeition. Hogeita sei urte zituen Lekeitioko musika bandaren eta musika eskolaren zuzendaritza hartu zituenean, beraz, kantako<sup>35</sup> zuzendaria ez zen horren zaharra.

“Dolores estaba,  
en el mirador,  
haciendo las señas,  
haciendo las señas,  
con el director.  
Su madre le dijo,  
Dolores por Dios,  
que tu eres muy joven,  
que tu eres muy joven,  
para el director”.



Lekeitioko musika banda, 1915

Suposatzen dugu leku berrira egokitzen emango zuela 1915. urtea, ez baitago apartekorik artxiboko paperetan: musika banda berrantolatzen, umeei musika irakasten, erreperorioa bere nahierara egokitzen, instrumentu eta entsegu-lokalak gainbegiratzeko, kanta eta instrumentu berriak eskatzen, udalari pulstua hartzen, etxebizitza topatzen, lagunak egiten, entseatzen, plazako emanaldiak burutzen ... azken finean, musika egiten.

Osteko urteetan, udalaren osoko bilkuretan sarri agertzen da Beobideren izena; beraz, badaukagu pertsonaiaren profila osatzeko materiala.

<sup>35</sup> Kanta herriko hori Feliciano Beobide eta Dolores Ordorikari ateratakoa da. Ez zen Feliciano adinez zaharra, Dolores zen gazteagoa.

### 1916

Beobidek Lekeitioko banderari martxa bat idatzi zion, erreperorioan antzekorik aurkitu ez zuelako, eta udalari eskaini, haren oniritzia jasotzeko. Aho batez onartu zuen udalak eskaintza<sup>36</sup>, eta bandera ateratzen zen egunetan martxa jotzeko konpromisoa hartu, gaur arte iraun duena. Martxaren jatorrizko partitura udal artxiboan dago gordeta. Beobideren Lekeitioko Banderaren Martxa herriaren ereserkitzat hartzea proposatu zuen Zinkunegi zinegotziak eta onartu egin zitzaion mozioa<sup>37</sup>.

Musika eskolako ikasleei diplomak banatzea erabaki zen<sup>38</sup>, azterketetan atera zituzten emaitza bikainak txalotzeko. Zuzendariari zorionak ematea ere onartu zen, egiten zebilen lan zoragarria eskertzeko.

Beobideren soldata-igoera tratatzen da ekainaren 17ko Osoko Bilkura. “*I. Mundu Gerrak hain garestitu du bizimodua, ezen urteko 1.500 pezetakoa soldatarekin ezin baitiet oinarrizko gastuei ere aurre egin. Ezin bada %50koa izan igoera, izan bedi gutxienez 500 pezetakoa*” zioen gutunean. Igoera eskatzeko beste arrazoi bat ere aipatzen du: musika eskolako ikasle kopuruaren gorakada, eta horrek dakarren lan gehikuntza. Hogeita hamazazpi ikasle zituela eskolan, dio gutunean. Gobernu eta Ogasun batzordeen txostenak entzunda, ezetza eman zitzaion bandako zuzendariaren soldata igoerari<sup>39</sup>; bestela, udal-langile guztiei igo beharko zitzaielako soldata proportzio berean, bizitzaren garestitzea denentzat baitzen berdina.

### 1917

Ohartarazpena bandako zuzendariari<sup>40</sup> aurkeztutako 148,80 pezetako faktura baten kariaz; fakturan, 1915eko eta 1916ko gastu batzuk ageri ziren, eta udal jardunak urtean urtekoak baino ez ordaintzea eskatzen zuten; beraz, aurrerantzean epeak zaintzeko eskatu zitzaion.

### 1918

Musika eskolako ikasleei diplomak Sanantolinetan eta modu arrandiatuan ematea erabaki zen<sup>41</sup>.

Beobideri material eskabideak udaletxeko idazkaritzaren bidez egiteko agindua eman zitzaion<sup>42</sup>, aurreko urteko faktura bat, Erviti etxearena, epez kanpo aurkeztu zuelako.

### 1919

Baja medikua hartu behar izan zuen Beobidek, apirillean, gripe espainiarrak eragindako pneumoniagatik. Julian Ziarretak ordeztu zuen karguan, lau bat hilabetez.

### 1920

Beobidek musikarientzako soldata igoera eskatu zuen<sup>43</sup>. Ordura arte, egunean erreal bi kobratzen zituzten 1. mailakoek, erreal eta erdi 2. mailakoek eta erreal bakararra 3. mailakoek; horrez gain, aparteko eskupekoa neguko igandeengatik. Udalak %20ko igoera eskaini zion, baina

<sup>36</sup> 1916ko apirilaren 20ko Osoko Bilkura.

<sup>37</sup> 1916ko apirilaren 29ko Osoko Bilkura.

<sup>38</sup> 1916ko ekainaren 17ko Osoko Bilkura.

<sup>39</sup> 1916ko urriaren 19ko Osoko Bilkura.

<sup>40</sup> 1917ko ekainaren 16ko Osoko Bilkura.

<sup>41</sup> 1918ko uztailaren 16ko Osoko Bilkura.

<sup>42</sup> 1918ko irailaren 13ko Osoko Bilkura.

<sup>43</sup> 1920ko urtarrilaren 2ko Osoko Bilkura.



musikariak ez zeuden %20 horrekin ados eta haxe eskatu zuten: egunean 75 zentimo 1.mailakoentzak, 60 zentimo bigaren mailakoentzat eta 45 zentimo hirugarren mailakoentzat; horren truke, urte guztiko igandeetan jotzeko konpromisoa hartzeko prest agertu ziren, aparteko eskupekorik gabe. Beobidek kalkulu matematiko zehatzak eginez justifikatzen du, gutunean, musikarien eskabidea, haiek pozik edukitzea garrantzitsua baitzen bandak ongi funtzionatzeko. 1920ko urtarrilaren 9ko Osoko Bilkuran onartu zitzairen musikariei soldata igoera.

1920ko otsailaren 20ko Osoko Bilkura.

Beobideren eskabideak: Instrumentuen konponketa; Udarako musika pieza berriak erosteko baimena; Kioskoko sarraila eta atrilen konpontzea eta estera bat eta erratz bi Musika Eskolarako erostea; Musika Eskolako egutegia aldatzea, lokal berria hotza, hezea eta ozentasun gutxikoa baitzen, behegaineko baldosen erruz. Klaseak martxoaren hasieratik Zizili deunera<sup>44</sup> izatea proposatu zuen eta oporrak abenduan, urtarrilean eta otsailean. Puntu guztiak onartu zizkieten, instrumentuen konponketarena izan ezik, horren azterketa Gobernu batzordeari baitzegokion.

Geroago, hiru puntuko eskabide txostena bidali zion Beobidek udalbatzari<sup>45</sup>:

- ♪ Baimena 450 pezetatan 2. eskuko instrumentu hauek erosteko: saxofoia, baritonoa, tenorra, oboea, klarinete bi eta fliskorno bat. Jatorria: Tolosako musika banda.
- ♪ Entsegu lokala, Musika Eskolarena ere bazena, konpontzea, egutegi aldaketak ez baitzuen funtzionatzen, ikasleek, udan, hondartzan ematen baitzuten eguna, Musika Eskolara sasieskola eginda. Beraz, klaseak, lehen bezala, urritik ekainera izatea eskatu zuen, eta oporrak uztailean, abuztuan eta irailean. Baina, horretarako lokalaren konpontzea ezinbestekoa zela berretsiz.
- ♪ Musika bandaren berrantolaketa, Musika Eskolako ikasleentzat maila bi ezarriz: 4. mailakoek, 30 zentimo kobratuko zuten egunean, eta 5. mailakoek 15 zentimo; *“horrela, aurrekontuan eragin handirik egin gabe, 25 musikaritik 35era pasatuko litzateke banda, eta ikasleek hiru urtez egongo lirateke bandarekin praktikatzen”,* dio idatzian.

Denbora gutxira, Ignacio Aranberri (Txantxibus) musikariaren bajaran berri eman zuen zuzendariak<sup>46</sup>, eta, klarinete printzipala izanik, hura ordezteko norbait kontratatzea eskatu, gainean zeuden Sanantolinetarako; edo, bestela, udalak Aranberri konbentzi zezala irailean 8ra arte bandan jarraitzeko. Beobidek, idazkian, baja horri ausarta eta lotsagabea zeritzon. Eta Txantxibusen ezkutuko asmoa zein zen ere esaten du: Bergaratik zetorren bandaren ondoan herrikoa ezdeus uztea.

Ignacio Aranberriren gutuna<sup>47</sup> irakurri zen –udal langilea izanik, udalean gertatzen zen guztiaz zen jakitun–. Bandako zuzendariak bere bajaz esandakoez minduta, Beobideren zuzenketa eskatu zuen, bere ohorea urratzearren. Serenaten dirua eta aparteko pagena banatzeko prozedurak –Sanantolin bezperan banatzeaz tematzen zen zuzenda-

ria– haserrarazi zuela dio, eta eztabaida sutsua izan zutela; eztabaidan banda uzteaz mehatxatu zuela zuzendaria, eta hark, berehala, atea seinalatu ziola.

Udalak batzorde berezi bat eratu zuen auzia argitzeko, Jacinto Garamendi izendatuz batzordeburu.

Larrazabal zinegotziak kexa aurkeztu zuen<sup>48</sup> musika eskolak hile bi zeramatzalako ateak itxita, eta, bere iritziz, lokalean hobekuntzarik egin ez izana ez zelako aitzakia klaseekin ez hasteko. Zuzendaria ohar-taraztea eta lokalaren konponketa aztertzea eskatu zitzaion Sustapen batzordeari.

## 1921

Larrazabalek espediente ireki nahi zion zuzendariari<sup>49</sup>, entsegurik ez zuelako egiten eta musika eskola ez zuelako irekitzen. Garamendik erantzun zion esanez, horren errua ez zela Beobiderena, udalarena baizik, zuzendariak ahoz zein idatziz eskatu zuelako, behin eta berriz, lokalaren konpontzea, eta udalak ez ziolako kasurik egin. Larrazabalek espediente irekitzeko arrazoi gehiago ere bazegoela dio gutunean, herritik sarri faltatzen zelako, alkatearen baimenik gabe. Garamendiren iritziz, ardurak bete ondoren edonora joan zitekeen, alkateari baimenik eskatu gabe. Larrazabalek haur eskolak entseguetarako behin-behinean egokitzea proposatu zuen, eta, ostean, zuzendaria espedientatzea, jarrera aldatu ezik.

## Areto itxietan ere aritu zen

1919ko abenduaren 31n “Beobide seikotea” izeneko taldea eratu zuten bandako musikari gazteek Beobiderekin, saloiko musika suspertzea eta Beitia zinemako pelikula mutuak girotzea zen euren zeregina. Seikoteko kideek: Feliciano Beobide, Andres Ordorika, Agustin Elordi, Domingo Fresnedo, Candido Urkiaga eta Juan Urizar. Joko zituzten instrumentuak, hauexek: biolin 2, biola bat, flauta, biolontzelo eta pianoa.

Zuzendariaren zeregina seikoterako obrak prestatzea zen eta entseguak –funtzioko bi– zuzentzea. Musikariena musika jotzeaz gain, puntualtasuna zaintzea funtzioetan zein entseguetan. Huts egiten zuenarentzako isunak ezarri zituzten: pezeta bat musikarientzat, hiru zuzendariarentzat.

Pelikulako 10 zentimo irabazten zuten. Hortik %10 gastuetarako gordetzen ziren, eta gainontzekoa banatzeko zen. Zuzendariak musikarien halako hiru jasotzen zuten.

Instrumentuak zuzendariak erosi zituen, eta musikariek saioko irabazia berari ematen zioten, harik eta instrumentua ordaindu arte. Behin zorra kitatuta, dena patrikerarako.

Beobide Lekeition izan zen bitartean iraun zuen taldeak; gero, bertan behera geratu zen.

“Beobide seikoteari” instrumentuak Musika Eskolari emateko agindu zion udalak<sup>50</sup>, baina seikoteko kideak ukatu egin ziren, instrumentuak beraienak zirela frogatuz. Arrazoia eman zien udalak.

## Euskal Musika berpiztera joan zen Lekeitiotik

1921eko urtarrilaren 12an Beobidek dimisioa aurkeztu zuen Euskal Mu-

44 Azaroak 22.

45 1920ko uztailaren 14ko Osoko Bilkura.

46 1920ko abuztuaren 25eko Osoko Bilkura.

47 1920ko irailearen 10eko Osoko Bilkura

48 1920ko azaroaren 24ko Osoko Bilkura.

49 1921eko urtarrilaren 5eko Osoko Bilkura.

50 1921eko otsailaren 4ko Osoko Bilkura.



sikaren Argitaletxearen zuzendaritza hartu ahal izateko. Hiru hilabetez jarraituko zuela zuzendari zioen gutunean, araudiaren 14. artikulua betetzeagatik.

Onartu egin zitzaion dimisioa, eta eskerrak eman bere jardunagatik, Beitia, Garamendi eta Odiaga zinegotzien ekimenez.

Handik laster atera zuten bakantea prentsara.

### Gauzak lotuta utzi zituen joan aurretik

Beobide ordezkatu behar zuenaz zer zegoen galdetu zuen Larrazabalek<sup>51</sup>. Garamendik erantzun zion esanez oposizio-epaimahaia Beobidek, Ondarroako bandako zuzendariak eta Gernikakoak osatzea pentsatu zutela. Larrazabal aurka agertu zen, herrian puntako musikariak izanda, kanpotik inor ekartzea gastuak areagotzeko baino ez zelako. Beitiak kanpokoek inpartzialago jokatuko zuketela zioen. Azkenean, Beobide, Ugalde eta Valdes izatea epaimahaikide adostu zen.

Izena emandako lauretatik bakarra aurkeztu zela azterketara agertzen du epaimahaiaren txostenak<sup>52</sup>: Alfonso Larreta. Epaimahaiaren iritziz, jarri zitzaizkion lau ariketak – armonia, instrumentalizazioa, pianoa jotzea eta banda zuzentzea – erraz gainditu zituen; beraz, proposa izan zitekeen banda zuzentzeko. Osoko Bilkurak Alfonso Larreta zuzendari izendatzea eta Pablo Beitiari eskerrak ematea erabaki zuen, hoteleko saloia eta pianoa azterketarako prestatzearren.

### Euskal Musikaren Argitaletxea

Beobide jaioterrira itzuli zen, musika-instrumentuei euskaraz irakastera. Metafora da, noski, baina errealitate hurbil-hurbil dagoena.

Euskal Musikaren Argitaletxearen zuzendaritza teknikoaren ardurua hartzeko joan zen Lekeitiotik, eta begira zein zen erakunde horren egitasmoa: Euskal Herrian ugari ziren musika-bandentzako euskal musika argitaratzea; argitaletxearen sustatzaileek susmatzen baitzuten, baten batek egin ezik, musika bandetako zuzendariak ez zutela inoiz lan hori burutuko, eta, beraz, herriak ez zuela euskal musikarik inoiz entzungo.

Argitaletxearen zuzendaritza artistikoa goi mailako hiru musikariren esku zegoen: Jesus Guridi, Eduardo Mokoroa eta Jose Franco, eta zuzendaritza teknikoa eta administratiboa Feliciano Beobideren esku.

Plangintza hauxe zen: hileroko bandarako euskal obra bat ateratzea eta gidoi-partituraz gain, 25 instrumentuentzako orrialdeko biko partiturak bidaltzea bazkideei, 6 pezetaren truke. Bandak zituzten udalak izan zitezkeela bazkide pentsatu zuten, eta bazkidetza kanpaina Euskal Herri osora zabaldu zen.

Argitaletxean zuzendari izan zen garaian, Tolosako Bandako eta Musika Eskolako zuzendaria ere izan zen Beobide, oposizioz aterata plaza.

1931n, Beobideren aurkako kanpaina biztu zen prentsan, Lekeitiotik kanporatu egin zutela esanez. Lekeitioko alkate Mariano Adan de Yarza alkate jeltzaleak gezurtatu zituen esandakoak.

Abertzalea zen Beobide, eta abertzale izateagatik izan zituen areioak han eta hemen, Mariano Adan de Yarza Lekeitioko alkateari 1932ko martxoaren 26ko gutunean aitortzen dionez. Lekeitioko areioen artean, Bruno Larrazabal aipatzen du. Larrazabal zinegotzia izan zen Beobide bandako zuzendari izan zen garaian, eta Beobide bizi izan

zen etxearen jabea ere bai. Madrilera kongresurako 1918ko hauteskundeetan, Larrazabal hautagaia zen, baina ez zuen diputatu agiritik lortu, Antonio Arroyo hautagai abertzalea gailendu zitzaielako. Beobidek hautagai abertzaleari eman zion botoa etxejabe mauristari barik; hortik areriotasuna, Beobideren iritziz.

Bracho udaletxeko idazkaria ere areriotzat zeukan.

Gerratean desterratu egin zuten eta iparraldera joan zen familia-rekin. Maulen, musika akademia bat sortu zuen. 1948an itzuli zen erbestetik, Margarita emaztearekin eta Miguel eta Julian semeekin. Donezteben hartu zuten bizitokia eta hil arte, 1956ko uztailaren 24an, Elizondoko bandako zuzendaria izan zen. Donezteben eta Elizondon ere musika eskolak sortu zituen.

Lesakan enterratu zuten. Eta enterruko egunean, Tolosako musika bandak lagundu zion elizatik hilerrira Rossiniren hileta-martxa joaz, Beobidek bandarako moldatutako obra.

Bera hilda egon arren, haren obrak bizirik dirau, “Negua” eta “Udara” bildumetan argitaratua, gehiena. Bere kanten artean, arrakastatsuenak, seguruenik, “Altza Gaztiak” izango da, antzina mendigoizaleen ereserkia, eta, orain, Athletic-ena.

Berea izateko zantzu asko ditu “Aeroplano bi pasata ...” kantak ere, 1917an, Beobide Lekeitioko bandako zuzendari zela Lekeition gertatutako istorio bat kontatzen baitu abestiak, baina ez dut partiturarik aurkitu; beraz, ezin dut baieztatu. Gainera, bada Lekeitioko Estudiantinaren erreperitorioan kanta bat musika bera duena. “Este año los carnavales, Lekeiton bai politak ...”. Zein zen arinagokoa?



Kantako benetako aeroplanoa, 1917

Berarekin bandan ibilitakoak hauexek: Miguel Abaroa, Maximo Akarregi, Ignacio Aranberri, Jose Luis Aranberri, Pedro Astegia, Jose Martin Atxurra, Eusebio Bandres, Jesus Egurrola, Jose Maria Egurrola, Luis Egurrola, Francisco Eiguren, Agustin Elordi, Juan Elordi, Teodoro Elordi, Antonio Erkiaga, Victor Erkiaga, Pedro Erkiaga, Valentin Escribano, Domingo Fresnedo, Alfonso Gartzia, Balbino Gartzia, Julian Gartzia, Manuel Goitia, Emilio Gonzalez, Rafael Harce, Angel Iribarren, Antonio Ituarte, Cruz Kortabitarte, Domingo Lapeyra, Basilio Legarra, Basilio Legarza, Paulo Legarza, Fernando Lopez Quintana, Emilio Maruri, Benito Mendiguren, Francisco Mendiguren, Daniel Odiaga, Gregorio Olivan, Andres Ordorika, Jose Ordorika, Manuel Ordorika, Ramon Ordorika, Esteban Piñel, Francisco Piñel, Casimiro Prieto, Jesus Rivera, Juan Robles, Julian Robles, Felipe Txopitea, Candido Urkiaga, Benito Zabala, Julian Zabala, Ramon Zabaleta, Jose Luis Zapirain, Santiago Zapirain, Florencio Ziarreta, Julian Ziarreta eta Constantino Zugadi.

51 1921eko apirilaren 6ko Osoko Bilkura.

52 1921eko apirilaren 20ko Osoko Bilkura.

Al Athletic Club de Bilbao  
**ALTZA-GAZTIAK**  
 PASA-CALLE

(Himno de los Mendigadores)

Letra de E. ARRISE

Música de J. DE BEOBIDE

Voces

Piano

gu zi ak jai e der on lan bil-du za rra k e - ta gaz ti ak Gai ze tik al-tza

gaz ti ak sa-soi do zu ten gu zi ak jai e der on lan bil-du za rra k e ta gaz ti ak Pla

Editorial de Música Vasca - TOLOSA

Propiedad. Derechos reservados para todos los países

*J. de Beobide*

Beobidaren "Altza Gaztiak" partitura

ACADEMIA MUNICIPAL DE MÚSICA DE TOLOSA  
**CONCIERTO SINFÓNICO MUSICAL**

PROGRAMA

- Primera parte
- Para y Adagio, por el Director J. Beobide.
  - Piano de las Montañas, para piano por el mismo.
  - Selva, a dos voces, por un coro de niñas.
- Segunda parte
- Repertorio de premios a los alumnos de la Academia Municipal.
- Tercera parte
- Gran Fantasia, gran grupo de concierto para piano, a cuatro manos, por A. Irujo y el I. Irujo.
  - Gran Toccata, para piano, a cuatro manos, por los mismos.
  - Música para piano, a dos voces, por todos los alumnos de la Academia.

Exh. 3888

REPUBLICA DEL Euzkadi

REDACCIÓN Y ADMINISTRACIÓN

11/11

Marzo 31 de 1921

Ayuntamiento de Segorri

TÍTULO DEL ANUNCIO	MES DE LA INSECCIÓN	Edic.	Por línea	Por día	Por columna	Por espacio	Por línea	Por día	Por columna	Por espacio
Plaza de Director	Marzo	3	20	60	1	60				

Publ. en Segorri 27 abril 1921

Zuzendaria plaza beteteko iragarkia, 1921. LUA L80/L81

**EDITORIAL DE MÚSICA VASCA**  
 Patrocinada por EUSKO-IKASKUNTZA  
 Sociedad de ESTUDIOS VASCOS

Ibar, 8 é Idiaquez, 4 - TOLOSA - Teléfonos, 1 y 336

Obras para Piano

Obras para Piano	Pesetas
Emoni. Pasacalle vasca	3,00
Arrese	3,00
Gora Uzkuduni	2,50
Korpuze-Eguneko Zortakoa	2,50
Nostalgia	4,50
Jurves Gorriak	4,50
Id. - Oyenegi Canción de Ronda	3,50
Id. - Amorea Margaritarro	3,50
Id. - Mocoora y Beobide	4,50

Obras para Piano y Canto

Obras para Piano y Canto	Pesetas
Beobide.-Altza-Gaztiak. Himno de los Mendigadores.	
Id. - Gora Uzkuduni	2,50
Id. - Korpuze-Eguneko Zortakoa	2,50
Id. - Oyenegi Canción de Ronda	3,50
Id. - Amorea Margaritarro	3,50
Id. - Mocoora y Beobide	4,50



### Alfonso Larreta

1921eko apirilaren 20an entregatu zion epaimahaiak oposizio-txostena udalari, eta orduantxe erabaki zuen udalak Alfonso Larreta izendatzea bandako zuzendari. Larretak gutun bidez eskertu zuen izendapena, eta ekainaren 1era arte ezin izango zuela kargua hartu jakinarazi. Tarte horretan Julian Ziarreta izan zen bandako zuzendaria.

Beobideren argitaletxearen lehen lau obrak 1921ko udan iristekoak zirenak, urte horretako azken hiruhilekoan heldu ziren Lekeitioko udaletxera: Mokoroarren “Euskal Soinuak”, Jose Franco-ren “Euskal Herria”,

eta Beobideren “Zeledon” eta “Altza Gaztiak”; beraz, litekeena da *Altza Gaztiak* Lekeition idatzia izatea eta Lekeitioko banda obra hori jotzen lehena.

1921eko ekainaren 24an inauguratu zuten hirugarren batzokia Lekeition eta Larreta batzokiko kidea zen; beraz, zuzendari jeltzalea zukan berriro ere musika bandak.

1921eko abenduaren 21ean Larreta eskaera zehatzekin zuzendu zitzaion udalari: klarinete berriak erostea, hainbat instrumenturen konpontzea, instrumentuak gordetzeko armairu batez lokala hornitzea, euria ari zuenean jo behar zen ala ez zehaztea, plazako emanaldien ordutegia finkatzea eta eskubideak eta betebeharrak bilduko zituen araudiaren premiaz ohartaraztea. Udalaren erantzuna: klarineteak erosteko eta instrumentuak konpontzeko baimentzen zuela zuzendaria; armairua erosteko ere bai; euri zein ateri jo egin behar zuela bandak, alkattea zelarrik saioa eten zezakeen bakarra; eta ordutegia finkatzeaz zein araudia idazteaz, arduratzeko bera, eta aurkezteko zirriborroa udalari, aztertzeko.

Bandan praktiketan zebiltzan musika eskolako Gartzia anaiak banda uzteaz mehatxatu zuten zuzendaria<sup>53</sup>, aurrekoak, Beobidek, soldata eskaini zielako eta Larretak eman ez. Beobidek, antza, bandan zebiltzan ikasleei bere patrikeratik ematen zien eskupekoa.

Igande eguerdietako kontzertuak ostegun iluntzeetako *bailableekin* ordeztzeko eskatu zuen Larretak<sup>54</sup>, aurreko urtean bezalaxe, banda ez zegoelako kontzertuetarako prestatuta.

1923ko irailaren 13an Primo de Riverak estatu golpea eman zuen. Ondoren ezarri zuten diktadura laster oldartu zen nazionalismoaren aurka. Batzokia ixtera joan ziren guardia zibilek batzokia baino garaigoa zen pinu arbola – ikurrinaren masta – erauzi egin zuten, euskaltasunaz eta abertzaletasunaz zeuzkaten asmoen berri iragarritz.

1923ko urriaren 2an guardia zibilen komandanteak bildu zituen zinegotzi guztiak udaletxean eta kargugabetuta zeudela jakinarazi. Ondoren, udalbatza berria eratzeko pertsonak berriak deitu zituzten. Alkatea: Jose M<sup>a</sup> Amusategi, alkateordeak: Manuel Garabilla eta Leon Okamika.



Batzoki berriko kideen zerrenda. tartean Alfonso Larreta, 1921 LUA-2006/2

1923ko urriaren 12a. Leon Okamika alkateordeak *arrazaren eguna* ospatzeko, musika jotzeko agindu zion musika bandari.

Biharamunean, gutun bidez lotsak eman zizkion zuzendariari, bezperan gogo barik aritu zelako musika banda.

Handik egun bira, Larretak honela kontatu zion arrazaren egunean gertatutakoa Okamikari.

“Urriaren 12an, eguerdian jakin nuen arratsaldean musika jo behar zela, udaletxeko idazkariak esanda. Etxera etorri zitzaidan Andres Ordorika musikaria prozesioetako diru batzuk ekartzera, eta, unea aprobetxatuz, hari agindu nion musikariei arratsaldeko saioaren berri emateko, Gartzia anaien bidez. Ordorikak galdetu zidan ea emanaldia ordainduko zuten. Ezetz esan nionean, araudia eskatu zidan, udalak hainbeste aparteko saio – bosgarrena urte barruan – agindu zezakeen ala ez jakiteko. Beobidek pasatutako araudia erakutsi nion eta han ez zetorren ezer aparteko saioez. Horren aurrean, Ordorikak esan zidan bere anaia eta bera ez zirela musika jotzera jaitsiko. Arratsaldeko seietan hurbildu nintzen alamedara eta bandako kide gutxi ikustean, udaletxeko idazkaritzara abiatu, baldintza haietan kontzerturik ezin zela eman esatera. Udaletxean atabalariarekin egin nuen topo eta atabalariak esanda jakin nuen errekadurik ez zitzaiola iritsi. Orduan, batari eta besteari galdetuz jakin nuen Ordorikak Luciori eman ziola errekadua, Lucioek Gartzia anaiari, eta hauek zer egin zuten mandatuarekin jakin ez. Azkenean, etsita, arratsaldeko zortzietan ahalegindu ginen udalaren agindua betetzen, zortzi musikari gutxiagorekin. Ez zen gogo falta, musikarien boikota baizik. Eta boikota

53 1922ko apirilaren 22an  
54 1922ko uztailaren 5ean.



ihesaldi orokor bihurtzerik nahi ez baduzue, utz iezaiozue aparteko saioekin banda estutzeari”.

Leon Okamikaren aurrean deklaratu zuten arrazaren eguneko emandari boikot egin zioten musikariek<sup>55</sup>: Ramon eta Andres Ordorika, Benito Zabala, Maximo Akarregi, Francisco Eiguren, Daniel eta Fernando Odiaga eta Manuel Goitia. Zergatik ez zuten musikaririk jo galderari, ez zutelako ordaintzen erantzun zioten guztiak<sup>56</sup>. Horren aurrean, alkatetzak 30 egunez soldatarik gabe zigortu zituen matxinoak. Horren berri izan bezain pronto, zigortu guztiak utzi zuten banda, batek izan ezik. Orduan, bandako plaza bakanteak betetzeko deialdia egin behar izan zuen udalak. Sei plaza bete nahi zituzten: errekintoa, klarinete 2, kornetina, flauta eta saxofoia.

Andres Ordorika zuzendariordeak Zizili deuneko afarirako diru laguntza eskatu zion udalari<sup>57</sup>, urtearen zehar kobratu gabe eginak zituzten saioen ordainsari gisa.

Bandaren aparteko zereginez jabetzeko, hara hemen Larretak udalari aurkeztutako zerrenda<sup>58</sup>: “Austria eta Hungariako Enperatriza<sup>59</sup> bisitatzen datozen Espainiako errege eta printzeak bandarekin hartzea, errege-erreginen eta Asturiaseko printzearen urtebetetzeetan musika jotzea, kolera desagertu izana musikaz ospatzea ... eta ustekabeko beste hainbat bisitatu jo behar izatea. Eta, jakina, horietako askotara joan ahal izateko, musikariek euren lana utzi behar izaten dutela; beraz, aparteko saioak ordaintzen hastea pentsatu beharko luketela”.

1927ko otsailaren 16a. Aratusteetan Estudiantinaren kalerik kale irteteko baimena eskatu zion Larretak Leon Okamika alkateari eta honen gobernadoreari. Baiezkoa izan zen erantzuna.

Hamabost herritako banden egoera aztertuta hausnarketa sakona helarazi zion Larretak udalari<sup>60</sup>. Hauxe hausnarketaren mamia:


“1923an hasitako gainbeherari sendagarririk eman ezik, herria laster izango da bandarik gabe, banda uzten dutenen kopurua – 30 zuzendari lanean hasi nintzenetik – musika eskolatik sartzen direnena baino handiagoa delako. Zaila ikusten dut 16 urtetik beherako 20 musikariz osatutako banda batek aurrerantz egitea, 10en bat heldu erreferente izan barik. Gainera, musikariek eta nik egiten dugun lana antzua da, oporrik ere ez dugu hartzen, baina herriaren onarpenik eta txalorik ere ez dugu lortzen. Errazena zuzendaria guztiaren errudun egitea izango litzateke, baina banda uzten dutenen arrazoiak aztertzen hasita, denetik dago: ikasten kanpora joatea beste biderik ez dutenak, herritik kanpo lanera joan behar dutenak ...

Lanturuak albora utzita, proposamenak egitera natorkizue: eskubiak eta betebeharrak zehaztuko litzuzkeen araudia behar-beharrezkoa dugu, aztertu ditudan herrietako bandek daukaten moduan; soldata igoera ere premiazkoa da, jendea bandan eusteko”.

Proposamena, antza, ez zen onartu, zeren 1928an Mungiako udalak bandarako araudi eske jo zuenean Lekeitiokora, hauxe izan baitzen Leon Okamika alkatearen erantzuna: Musika bandak ez zuela araudirik, hiru urte lehenago udalak idatzi zuena musikariek ez zutelako onartu. Herri txikietan oso zaila zela araudi bat indarrean jartzea, musikari gehienak

ikasleak zirelako, instrumentua menperatzen zutenerako itsasora edo industriara lanera zihoazenak. Baina gauza batzuk bazeudela finkatuta: musika banda zuzendariak eta hogeita bost – hogeita hamar musikaririk osatzen zutela. Zuzendariak urtean 2.244 pezeta jasotzen zituela; musikariek, mailaren arabera: 1. mailakoek 0,75 pezeta egunean, 2. mailakoek 0,60 eta 3. mailakoek 0,45. Urteko igande eta jai egun guztietan jo behar zutela, baita prozesioetan eta udalbatza bilduta ateratzen zen egunetan ere. Uztailaren 15etik irailaren 15era kontzertuak eman beharko zituzketela, eguerdian, baina kontzertuak ostegun iluntzetako baila-bleekin ordeztu zituztela, kontzertuetarako ez zeudelako prestatuta. Alkatetzak aparteko ekintzarik proposatu gero, 25 pezeta jasotzen zutela ordainsari gisara, nahiz eta kantitate hori negoziatzen ari ziren, oraindik. Emanaldien ordutegia: udan, 20:00-22:00; neguan, 17:00-19:00.

Musika eskolan 15 ikasle baino ez zebilen 1927-28 ikasturtean.



Musika eskolako ikasleak, 1927. LUA-1446/2

Goikoekin eta behekoekin ondo egoten ahalegintzen zen zuzendaria, baina, batzuetan, ahaleginduta ere ezin lortu. Hara zer erabaki zuten 1929ko irailaren 30eko batzorde iraunkorrean: 15 eguneko soldata kentzea Larretari, San Antolin egunean kontzertua hasi zuelako Leon Okamika alkatea aurrekua egitera irteteko zen unean. Alkateak udaletxeko balkoitik eman omen zion kontzertua ez hasteko agindua, baina zuzendariak kasurik egin ez; hortaz, zigorra eskatu zuen alkateak, autoritatea aintzat ez hartu izanagatik. Lau zinegotzik aurkako botoa eman zuten eta bostek aldekoa. Mendiola zinegotziaren arabera, zuzendariak programako ordutegia bete besterik ez zuen egin; udala zen programaren ordutegitik atera zena, aurrekua prozesioaren ostean dantzatu behar baitzen, baina Familia Inperialarekin argazkiak ateratzen eman zuten denbora piloa, zezenak harrapatu zituen.

55 1923ko urriaren 18an

56 Ideologiagatik izanda ere, zerak aitortu zuen horrelakorik.

57 1924ko azaroaren 19ko gutunean.

58 1926ko urtarrilaren 21ean.

59 Zita enperatriza.

60 1927ko urriaren 17an.



Lekeitioko Musika Erakundeen Araudia, 1932. LUA-1446/2

Zigorraren berri izan zuenean, zur eta lur geratu omen zen zuzendaria. Errekurtsoan, berari inork ez ziola aureskuaren berririk eman, zioen. Arraroa egin zitzaiola kontzertua hastera zihoala udaltzain bat joan izana kioskora txistulari ziren musikari biren bila, eta pieza amaitu arte ez mugitzeko agindu ziela txistulariei. Udaletxeko balkoia ikusi ere ez zuela egiten, hari lepo emanda zegoelako. Baina gehien harritu zuena inplikaturia entzun barik zigortzea izan zela, legearen beraren muina urratzen zuelako erabakiak.

Bertan behera geratu zen zigorra, azkenean.

1931n gaixotasun baja hartu zuen Larretak eta Ramon Ordorikak ordeztu zuen bandaren zuzendaritzan.

1931ko apirilaren 12an udal hauteskundeak egin ziren. Lekeition, abertzaleek zazpi zinegotzi lortu zituzten, independenteek lau eta errepublikazaleek bakarra.

1931ko apirilaren 14an, II. Errepublika garaitu zen Espainian.

1931ko apirilaren 15ean, Alfonso XIII.aren eta Isabel II.aren koa droak kendu zituzten udaletxeko aretotik, ikurrina eseki udaletxeko balkoian, eta aurreko igandeko hauteskundeetan hautatuek bozketaz erabaki zuten hurrengo alkatea: Mariano Adan de Yarza jeltzalea. Alkateordeak: Isaac Orue eta Bernardo Torrealdea.

Bandako zuzendariaren gaixoaldia luzerako zihoanez, Musika batzordeak norbait kontratatzea pentsatu zuen zuzendari lanak egiteko. 1931ko maiatzaren 16an, Higinio Iriarte markinarra izendatu zuten musika bandako zuzendariorde eta txistularien bandako zuzendari. Zuzendariordea erradikala eta bortitza zela zioten musikariek.

1932ko ekainaren 27an adostu zen, azkenean, Lekeitioko Musika Erakundeen Araudia eta 32 orrialdeko liburuxka batean argitaratu. Hirurogeita lau artikulu zituen eta artxiboan dago gordeta.

1932ko irailaren 1ean itzuli zen Larreta bandaren zuzendaritzara.

### Zuzendarien Gorputza

1932ko abenduaren 20an sinatu zuen Niceto Alcalá Zamora Espainiako Errepublikako presidentek lege bat, zeinaren bidez Musika Bandetako Zuzendarien Gorputz Teknikoa sortu zen. Zazpi artikulu zituen legeak. Laugarrenak behartu egiten zituen Erakunde Ofizialak – tartean udalak – Zuzendarien Gorputzetik hartzera bandetako zuzendariak.

### Gerra zibila

1936ko uztailaren 18an hasi zen Gerra Zibila.

1936ko urrian jausi zen Ondarroa matxinoen eskuetan. Frontea As-terrikan ezarri zuten gudariak eta kuartelak Lekeition: Konpainian eta Zubietan. Gurutze Gorria Uribarrenen jauregian; komandantzia Aros-tegiarenean.

Bandako 16 musikariek 4. hiruilekoa 1936ko abenduaren 22an kobratu zuten. 1937ko apirilaren 1ean, bandak kobratu zuen azken nominan 9 musikari baino ez zen geratzen; gainontzekoak frentean zeuden edota ihesean.

1937ko apirilaren 26an bonbardatu zuten Gernika. Biharamun arratsaldean eman zen Lekeitio ebakuatzeko agindua. Herrian zeuden garraibide guztiak jarri ziren iheslarien zerbitzura: auto, kamio, txalupa ... Askok egin zuen ihes.

Ayuntamiento de Lekeitio		Intervención	
PRIMER TRIMESTRE DE 1937			
Cuentas de los balances que corresponden al ejercicio presente y las anteriores, intervenidas el Cuadro 2211, con arreglo a los reglamentos que sobre particular...			
Artículo	EMPLEOS	CANTIDAD Cuenta / Sal.	CANTIDAD Cuenta / Sal.
30	3 Sueldos de 1.ª y 2.ª de 75.00	225.00	
1	1.ª de 3.ª y 2.ª de 75.00	75.00	
2	1.ª de 3.ª y 2.ª de 50.00	200.00	643.00
		Total Ptas.	643.00

Reporte la presente cuenta de la siguiente cantidad de salarios sujeta a p. 1937.

VISITACION: Lekeitio, 1.º de Abril de 1937. El Director: [Signature]

Bandako musikarieren nomina, 1937. LUA-L117

1937ko apirilaren 28an hutsik esnatu ziren Lekeitioko kaleak; sutan hiru eraikuntza: Orueren txaleta<sup>61</sup>, aduanaren eraikuntza<sup>62</sup>, eta Uribarrenen jauregia<sup>63</sup>. Anarkistak eman omen zieten su. Eguerdirantz agertu ziren Kurlutxuko bihurgunean euren buruei “nazionalak” deitzen zieten matxinoak: italiarrak eta erreketekak abangoardian.

61 Karraspion.

62 Gaur eguneko parkearen amaieran.

63 Gurutze Gorria izan zena, parkearen hasieran.

Laster zen Espainiako bandera udaletxeko balkoian; Sabino Arana etorbidea “Avenida del Generalismo Franco” bihurtua; Foruen enparantza “plaza de España”; Gamarra plazatxoa Calvo Soteloarena; Gamarra kalea Mola jeneralarena ... Mugimenduaren aurkakoen ondasunak lapurtze-ari ere agudo ekin zioten, familia asko ezer barik utziz. Batzokia Espainia frankistako alderdi bakarraren egoitza bihurtu zuten – Falange Española Tradicionalista y de las JONS –; Marina kafetegia konfiskatua ..., baina denetan okerrena delitu politikoak zigortzeko tribunal militarren eraketa izan zen, Errepublikarekin kolaboratu zuten guztiek zigortzea xede. Orduz gozotik, ezinikusiarren urek salaketaren bidea hartu zuten ... Gorrotoa lege. Matxinoek orpoz orpo bete zuten Mola jeneralak idatzitako manualak zekarrena: terrore giroa ezartzea. Atxilotetak, deserriratzak, isunak, kartzela, heriotza zigorrak, fusilamenduak ... eguneroko ogi bihurtu ziren.

Lekeition geratu ziren musikariek isilunez beteriko partitura interpretatzea besterik ez zuten izan beldurrezko gau beltz luze hartan ... eta halaxe egin zuten. Zazpi urtez egon zen mutu musika banda.

Alfonso Larretarekin bandan ibilitako musikariak hauexek:

Alfonso Larretarekin bandan ibilitako musikariak hauexek: Antonio Ajubita, Jose Ajubita, Alberto Akarregi, Maximo Akarregi, Jose Luis Aranbarri, Fernando Arrate, Juan Arrizubieta, Pedro Astegia, Angel Atxurra, Iñaki Atxurra, Jesus Atxurra, Eusebio Bandres, Juan Jose Barbarias, Jesus De Diego, Jose De Diego, Clemente De Diego, Jose Maria Egurrola, Luis Egurrola, Francisco Eiguren, Jesus Eizagirre, Agustin Elordi, Juan Elordi, Victor Erkiaga, Eusebio Erkiaga, Pedro Erkiaga, Valentin Escribano, Domingo Etxeberria, Domingo Fresnedo, Santos Garamendi, Faustino Gartzia, Jesus Gartzia, Carlos Gartzia, Miguel Gartzia, Domingo Goenaga, Alejandro Goienetxea, Esteban Goikoetxea, Jose Andres Goikoetxea, Lucio Goikoetxea, Manuel Goitia, Antonio Herce, Cesario Idoiaga, Manuel Ikazuriaga, Basilio Iturran, Santiago Iturrioz, Demetrio Izagirre, Cruz Kortabitarte, Paulo Legarza, Fernando Lopez Quintana, Francisco Mendiguren, Daniel Odiaga, Fernando Odiaga, Francisco Odiaga, Agustin Olivan, Gregorio Olivan, Juan de Dios Olivan, Andres Ordorika, Manuel Ordorika, Ramon Ordorika, Jose Ortiz, Enrique Perez, Felix Perez, Esteban Piñel, Francisco Piñel, Dimas Regidor, Juan Robles, Ignacio San Miguel, Victor Santamaria, Marcos Santamaria, Miguel Santamaria, Sabin Torrealdea, Juan Ugarriza, Raimundo Ugarriza, Claudio Uskola, Rafael Uskola, Benito Zabala, Santiago Zapirain, Florencio Ziarrreta, Julian Ziarreta eta Julian Zugadi.

Zazpi urtez mutu egon ondoren, berriro hasiko da herriko banda musika jotzen 1944an. Harrezkero, etenik gabe jardun izan du bere zereginen zientoka musikariren ahaleginari esker, honako zuzendarien gidaritzape kronologikoan: Francisco Garcia, Armando Montaña, Francisco Garcia, Miguel Arrieta, Rafael Rosell, Miguel Arrieta eta Urtzi Iriondo.



# TXIS PUN, ANTERON TXAMARROTIA...



## Segundo Olaeta eta Anteron Txamarrotia

Segundo Olaeta 1896an jaio zen Gernikan. 1919an hartu zuen Gernikako Bandako eta Musika Eskolako zuzendaritza. 1927an Euskal Herriko lehen koreografi taldea sortu zuen: Elai-Alai, Euskal Herri osoa arrakastaz zeharkatu zuena. 1937an, Gernika ketan utzita, atzerrirako bide mingotsari ekin zion familiarekin eta Elai-Alai taldeko ume gehienekin. Iparraldera, lehenengo. Parisera, gero. Parisen sekulako arrakasta lortu zuen errefuxiatu taldeak eta Frantzia guztitik

ibili ziren koreografiak eskaintzen, eta euren presentziak Gernikako sarraskia salatzen.

1943an itzuli zen Olaeta hegoaldera. Castor Uriarte Gernikako arkitektoak eman zion lana Markinan zeukan arma fabrikari, eta Olaetak Artibai taldeko musika banda eta izen bereko dantza taldea hauspotu zituen Markinan.

1944ko San Antolin egunean Gasteizeko Flandes erregimentuko banda militarra zen etortzeko Lekeitiora, eta, biharamunean, irailak 3, antzar egunean, Markinako Artibai musika banda.

Horren jakitun, Segundo Olaetak Lekeitioko kanta bat nahi zuen ekarri antzar eguneko kalejiran jotzeko. Orduan, lankide zuen Felipe Elordi lekeitiarrari galdetu zion zein izan zitekeen aproposena. Felipek Rufo Atxurrari pasatu zion errekadua eta taldean erabaki zuten "Anteron Txamarrotia" izan zitekeela egokiena, edo, bestela, "Aeroplano bi pasata". Partiturarik ez zegoenez, behin eta berriro kantatu zizkion Felipek Segundori *Anteron Txamarrotia eta Aeroplano bi pasata* kantak, arma lantegian. Segundok kanta bakarrean bildu zituenak.

1944ko irailaren 3an, udalbatza prest zegoen antzarren jaia presiditzen joateko portura. Bolanderaren hotsekin batera hasi zen Markinako Artibai musika bandaren kalejira: **Sol, #fa, fa, mi, re, do, si, txis, pun**. Anteron txamarrotia, Singerren bibotia, harexek, ei dauko, preso tximinoia...

Banda zihoan aurretik, udalbatza atzetik. Jendez gainezka zegoen portura bidea eta herritarrak entzuten ari zirena sinetsi ezinda. Txaloak, malkoak, bihotza paparretik irten beharrean emozioaren emozioz...

Kalejira hark irauli egin zuen lekeitiarren animoa, eta biztu gerrak suntsitutako ilusioa eta bizipoza.

Nekez pentsatuko zuten agintariak beraiek ordeztzen zuten sistema arrakalatu zuen ereserkia jaio zela egun hartan Lekeition.

Baina nortzuk dira kantako pertsonaiak?



Lekeitioko kaleak aztoratu zituen Artibai musika banda

## Antero

Antero Salinas Kruzelegi 1874ko abenduaren 19an jaio zen Ezpeleta kaleko 22an. Umetatik toleten artean ibilia, itsasoaren enbatei intxaur oskoletik aurre egin beharrak gogortua, foruen galerak Kubako gerrara behartua, arrantzalea, eliztarra, lau alabaren aita... Sanpedropean taberna izan zuen garai batean eta kutxa bete liburu etxean, inork ukitu ezin zituenak.

## Singer

Enrique Garcia Vara Madrilan jaio zen 1870ean, industrial eta merkataria familia batean. Ez ziren edonor izango, tailerrak eta etxebizitzak hiriburuaren erdigunean baitzeuzkaten: Atotxan eta plaza nagusian, zehazkiago. Enriqueren osaba Manuelek Farmazia karrera amaitu bezain pronto ihes egin zuen Madril politikoki gatazkatsutik eta botika zabaldu Lekeitioko Arranegi kalean. Denboragarrenera Lekeitioko neska batekin ezkondu zen.

Manuelek anaia Isidrori idatzi zion, Lekeitiora mudatzeko gomen-daturaz, leku lasaia zelako eta lanik ez zitzaiolako faltako, haren mailako profesionalik ez baitzegoen herrian. Isidrok Madrileko tailer eta etxeak saldu, eta Felipa amaztearekin eta bost seme-alabekin hartu zuen Lekeitioko bidea. Semeetako bat Enrique zen.

Lekeition hiru tailer mekaniko eraiki zituzten aita-semeek, baina Enriquek ezin zuen haietako bakar batean ere lanik egin, umetan jasandako gaixotasun baten ondorioz edonon hartzen baitzuen loak.

Alfertzat zeukaten herrian eta adarra jotzen zioten *señorito* baten moduan bizi zelako eta zeukan bibotea zeukalako. Ea ezer egiten zekien galdetu omen zioten, behin, eta berak Singer markako josteko makinak konpontzen zekiela erantzun. Ordutik aurrera, *Singer* ezizena izango zuen betiko.

Garai hartako Lekeition, nabarmentzen zen guztiari ateratzen omen zizkioten kantak, hortik esaera: "*Kontuz, gero, kantak ataraksuez ta*". Eta Singer gizaok kanta bateko pertsonaia izateko ezaugarri guztiak zituen. Ez ahaztu, Oñatek bandarako moldatutako kantaren izena "*Singerren bigotia*" zela.

Behin, arratsalde epel batean, abadeen moilan, tximinoitarako amuen tankerako bibote itzela soinean, sikatzen zeuden trainen gainean hartu zuen loak. Iratzartzeko, buru beltzeko orratz ugertu bat



Antero eta Singerren bibotia

sartuko zioten hiru astakilok lepotik. Zauria gaitzak hartuta, agonia minberatsuaren ondoren hil zen, 1929an.

Singerren heriotza gogoan, negar egiten omen zuen familiak “Anteron txamarrotia Singerren bibotia...” abestia entzutean.

Kanta honen inguruan mila eta bat anekdota konta daitezke; hiruzpalau kontatuko ditugu.

## BITXIKERI BATZUK

### Vienakoa

Lekeitiar talde bat, bisita gidatuan, Europako hiribururik zaharrenetarikoa bisitatzen: Viena. *“Austriaren hiriburua Danubioren ibaiaren ertzetan dago eraikia, milioi bat biztanle ditu eta alemanera da hizkuntza ofiziala”, hasi zitzaizen esaten gidaria. “XIX. mendean munduko musika-hiribururik garrantzitsuenaz izana...”*, ondorengo esaldia ez zuen entzuterik izan Joseba Koldobikaren emazteak, senarrak “Anteron Txamarrotia” ez ote zuen aditzen galdetu ziolako. Antzarrak ferratzera bidali zuen, Straussen “Danubio azul” entzuteko lekuan “Singerren bibotiaz” jardutearren. Joseba Koldobika, taldea utzita, uhinen atzetik abiatu zen. Halakoren baten, musika banda uniformatua antzeman zuen desfileen; traje urdinak, botoi doratuak, luma gorridun kapelu sakonak ... eta instrumentu distiratsuetatik Anteron Txamarrotiaren notak. Bandaren atzetik joan zen, negarra begietan. Atsedeneleku batean, kanta hura Vienara zelan heldu zen galdetu omen zion zuzendariari, esperantoz. Bizkaiko golkoko herrixka batean entzun zuela, asko gustatu zitzaiola eta berak ekarri zuela Vienara, erantzun zion alemañolez. Beraz, hara non, munduko musika-hiriburu garrantzitsuenean alemanera den hizkuntza ofiziala eta “Anteron Txamarrotia” hiriburuko ereserkia.

### Cartagenakoa

Santi Zapirain danbolinteroaren iloba Ana familiarekin joan omen zen behin oporretan Galiziara. Trikitixa irakaslea denez, infernuko soinua eraman zuen aldean, eta, tarteka, piezaren bat edo beste jo alokatu zuten etxean. Behin, goiko bizilaguna, laurogeita urteetako galego zarratua etorri omen zitzaion galdetzera ea zekien beraiek Cartage-



nan instrukzioan abesten zuten kanta bat jotzen. Ea zein zen? Eta osorik kantatu omen zion *Anteron Txamarrotia*, euskaraz, soldadutza egiten ari zela, 1950ean, Cartagenan buruz ikasi behar izan zuena, beste soldadu kide guztiek bezalaxe, eta instrukzioan kantatu, pausua markatzeko.

### Soriakoa

Soriako San Esteban de Gormaz herrian 200 dultzainaritik gora bildu ziren “Aires de Dulzaina” izeneko jaialdian, 2009ko urrian. Hainbat dantza talde izan ziren gonbidatuak eta batek izan ezik gainontzeok dultzainaren doinuaz egiten zuten dantza. Lekeitioko Etorkizuna zen salbuespena, “Emakumeen aureskua” eta “Kaxarranka” dantzatzeko gonbidatu baitzituzten.

Plaza batean bildu omen ziren talde guztiak, eta, bertan, Badalonako Castellers taldeak sekulako giza dorrea altxatu omen zuen. Hurrengo dantzalekura joateko, dultzainari katalanak, valentziarrak, gaztelarrak elkar hartu zuten, kalejira bakarra egiteko. Dultzaina mota ezberdinak elkartuta. *“Zein kanta jo?”* zen gakoa. Guztiek zekitena izan behar. Eta zein zekiten guztiek? Anteron Txamarrotia. Lekeitiarrak aho bete hortz, ezin sinetsita.

